

Jean Elizalde «Zerbitzari»

**AZKAIN
GURE SORTERRIA**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Azkaine gure sorterria*, Jean Elizalde Zerbitzari
(Piarres Xarritonen edizioa). Elkar, 1985

<http://klasikoak.armiarma.com/>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00379.htm>

AITZIN SOLASA SAL TSA-MAL TSA

Lantto hau hastean, badakizue betbetan zer heldu zaukun gogorat? Hiribarren gure herritar jaun kalonje aipatuaren paperetan irakurtu hitz hau:

*Ez har egiteko
Lan ahalaz goragoko!*

Eta ez dakigu hau ez den gure ahalaz gorago-koa. Hasten dugu halere, guk bururatzen ez badugu, bertze norbeitek eginen duelakoan. Sekulan ez litake deus has, beldurrari behatzen balitz! Eta gero hain laket zauku maite ditugunez mintzatzea! Virgile pertsulariak latin ederrenez aspaldi erran zuen «*trahit sua quemque voluptas*». Egia handia...

Aitzin solas bezala zer erranen dugu? Ez dezon irakurtzaileak hemengo Euskarari hurbilegitik beha. Ez da Azkaine-Azkainekoa. Badu Senpere eta Sarakotik. Badu Lapurdi barnekotik.

Orobat Baxenaberrekotik. Menturaz doi bat Xuberokotik ere ba. Saltsa bat da beraz. Agian saltsa ona, haatik!

Eta orai gure lumak baitu hainbertze erraiteko, zertarik has? Ez da errex hautatzea. Horra zertako gure lanari aitzin-izen hau emanen diogun: *Saltsa-Maltsa*. «*Miscellanea*» arras izen egokia izanen zen latinez, bainan iduripena dugu jada beretua duela Arturo Campion batek, eta idazle batzueri laket bazaikote bertzerena hartzea, etzaiku laket eta ez dugu nahi: «*Cuique suum!*». Eta doala *Saltsa-Maltsa*...

Azkain, *Azkaine* ala *Azkaina* erran behar ote da? Badire holako purruxkerietan beren denbora galtzen dutenak. Eta beren denborarekin, burua. Etzaiku balio. Egundaino *Azkain* eta *Azkaine* erran dugu. Doala beretik. *Azkaina* ez dugu onartzen haatik, Etchepare jaun miriku jakintsunak han edo hemen hala erran badu ere: herrian sekulan nihork ez dautzu erranen: «*Azkainako pilotari bat. Azkainako elizan*», bainan ba «*Azkaingo edo Azkaineko pilotari bat, Azkaingo edo Azkaineko eliza*»...

Duela ehun bat urte Larresoron norbeit izan da hitz guzien erroaren ondotik ibiltzea maite zuena: Hatan apezka. Ez da harek ateratzen etzuen bitxikeriarik. Ez dugu den gutieneko dudarik Hatan jaunak zartalakoan erranen zaukula nundik heldu den Azkaine. Xuxen edo makur erranen! Hatanen orde huna bertze bi hitz-ikertzale: «Azkain ez da mendia: haste da goratzen», dio Hiribarren Azkaindarrak; «Azkain Azkubek gain», dio Jean Sougarret, Larrungo ermitauak. Ez Hiribarrenen ez ermitauaren erranak ez du itxura handirik. Hainitz gehiago gustatzen zaiku Julien Vinson eta Pierre Lafitte apezak erraiten daukutena: «*Les noms des villages offrent un intérêt spécial: ils sont de trois espèces: les uns sont de simples lieux-dits, Ascain, qui a la montagne au-dessus*» dio lehenak; «Az, mendia da: beraz aise ageri da zer den Azkaine: mendia gainean duena», dio bigarrenak. Eta egiazki Azkainek gainean ditu Esnaur, Bizkartzun eta Larrun, hirur mendi eder.

Paul Raymondo jakintsuna ez da menturatu holako xehetasunetarat, bainan bertze batzu eman dauzku, onak baino hobeak: mendetik menderat Azkainek ukan dituen izenak: Escan (1140), Scain (1235), Azcayn (1302), Scainh

(1450), Ascaing (1552). Eta orai beha bitxikeria huni: *Azpareneren* izenik zaharrena *Hesparrene* da; *Azkainerena*, *Escan*.

Milesker handi bat zor digu hemen azken xehetasun balios hauk eman dauzkun Lafitte jaun apez adixkideari.

Azkaine hamabortz-hamasei ehun arima duen herri tarro bat da. Pollit eta maitagarria gainerat. Pollit eta maitagarrienetarik. Azkaindar batek erraitea itsusi da, bainan badire guk baino lehenago erran dutenak... eta euskaraz, frantsez eta latinez! Beha:

*«Bazoan Angeles bat Larrunat Serrestik:
Kurrida zuen besta, mundurat geroztik.
Ikusi zuenean Azkain bere salan:
Holakorik kaustea, zioen, bada lan!»*

Hiribarren

*«Je sais un site heureux fait pur la rêverie:
Du sommet de la Rhune, au sol armoricain
Il n'est pas de séjour plus ravissant
qu'Ascain:*

Du brillant joyau basque il est la pierrerie!».

J.E. Ducourneau

*«Me voilà revenu par un beau ciel
d'automne:*

*Ascain a maintenant un air de majesté:
La brume du matin entoure sa beauté,
Comme un voile encadrant le front d'une
madone!».*

XXX

*«Inclytae Ascaniensi civitati, conspectu
splendissimaea,
montibus et mari proximae, divis aedibus
hospitum
virtute comparandae. Adoro te devote».*

Marcellus Placens

Bai, Azkaine pollita da. Bai, Azkaine maitagarria da. Gure herrirat heldu direnek ez dute gehiago joan nahi. Ez da beraz batere harritzeko gu bezala ohantze maitetik urrundu behar izan direnek berriz itzuli nahi badute arratsa, arrats handia, heldu delarik ez eta ere Azkainen haurrek berek hain laket badute herriko pertsuen kantatzea!

*«Azkaineko xokoan da nere etxea,
Gune pollit batean umilki gordea.
Errege urus bada bere jauregian
Ni enaiz segur gaizki etxeko ttikian!...*

*Goizean jeikitzen naiz bihotza goxorik,
Ohean argiraino ongi loz aserik.
Xoriak ari dire kantaz oihanean:
Ni Errege bezala, musika aldean!...*

*Eguna laster doa gustuko zeretan,
Arrainketa, ihizin, ez bada pilotan:
Ilundu-eta ez dut deusen urrikirik:
Erregerik ote da urusago denik?*

*Zeru gainean baita denen Erregea,
Goiz-arrats laket diot otoitz egitea:
Jauna, ez dut galdetzen lurrean tronurik:
Bat hartuko dut, bainan... hil-eta bakarrik...».*

EGOITZAK

Ez dakigu Hiribarrenek nundik ateratu zuen berrogoi mende huntan hemen kokatuak direla Euskaldunak:

*«Pirenen bi aldetan Euskalduna sortu,
Berrogei mende huntan handik ez higitu:
Aitek utzi larreak beti zaindu ditu,
Mendiak bezen sendo deusek ez airatu...».*

Hiribarrenek begien aintzinean izan balitu Jean Saint-Pierre jaun Apezpiku euskaldunaren idazki batzu, etzuen holakorik finkatuko. Euskaldunak ez dire Pirenen bi aldetan sortuak, nunbeitik etorri dire hunat. Bortzgarren mendean tropaka sartu ziren Lapurdin, Baxenabarren eta Xuberon, eta haratago ere itzuli bat egin, nun zer ikusiko eta kausituko zuten. Han edo hemen kukuak makur jo zioketen eta gibelat itzuli behar izan zuten. Gure mendietan pazka-leku hautak kausiturik artaldentzat, zenbeit bederen hemen gelditu ziren orduan. Uste izaiteko da beraz gure

herriak bortzgarren menderaino doazila gorenetik: Azkaine bertzeak bezala...

Etixerik ez baitzen oraino, nun bizi izan ote dire lehen Azkaindarrak? Harpetan, dudarik gabe. Betidanik fama baita Azkainen harpeak Uhaldeko inguruetan badirela, balio luke artarekin bilatzea. Nork daki zer kausi litaken? Menturaz Otsozelai berri batzu!

Ez da dudatzeko harpetarik lekora etxoletan egon zirela Azkaindarrak. Harrizko ala taulazko etxoletan? Ez dakigu. Harrizkoetan segurago. Gero eta gero etorri dire etxeak...

Etixerik zaharrena zoin ote da Azkainen? «*Maison bâtie sous le règne de Philippe le Bel, en 1302*» irakur baditake errota zahar batean, beldurra baginuke hitz horiek dituen harria nunbeitik ekarria dela harat. Ez dugu deus finkatuko haatik, L. Colas jaunak bezala: «*Selon une tradition orale, elle provient d'une maison beaucoup plus ancienne*».

Olhetako xokoan bada etxe bat, oraino behingo etxe dena, eta harrian lantua, 1601 eder bat baduena. Azkaineko karrikan kasik, Azkubeko jauregia hamaseigarren mendekoa da.

Itxura guzien arabera Baionako jaun Apezpikua-
ren udako egoitza zen:

*«Azkaingo semek lehen bazuten burua
Eta etzuten ere harroka burua.
Handik zen Sosiondo igan Baionarat
Apezpiku kadiran biziz argitzerat:
Haren zen Azkubea...».*

Jean de Sasiondo, Azkubeko semea ote zen?
Ez dakigu. Hobeki sinets ginezake Sosiondoko
zela. Ez dugu haatik deus frogarik — horren fin-
katzeko, doidoia Sosiondoan ezagutu dugun
atxo xahar baten errana baizik: arras ixtorio
xaharretakoa zen atxo maitea...

Ez da Azkubea baino egoitza ederragorik
apezpiku batentzat; beha:

*«... Azkubea, apezpiku lana,
Piramidek bezenbat iraunen duena.
Asko diru behar zen haren egiteko,
Iturria menditik azpiz ekartzeko:
Baratze berdintzea gusta da ederrik,
Nihungo etxek harri hala pikaturik:*

*Eskalerik Parisen ez da ederrago,
Haren harri pikatu desafioz dago.
Gardia portaletan zaldiz da ikusten:
Alferretan hainitzek zer den galdegiten...».*

Hiribarren

Ez da bakarrik Hiribarren mintzatu Azkubear: 1935ean, *Ikertzaleak* ere bere hitza erran zuen «Gure Herrian»: «Jean de Sosiondo (1566-1578). Sor-lekua Azkaine, eta Azkainen Lapurdiko etxondo handienetarik bat. Etxea oraino xutik da: Azkubia deitzen dute. Daukate apezpikuak berak eginarazia zuela: dorre handi batekin badu gaztelu aire bat. Bi ate ederrak, aintzinetik eta bazterretik, baderamate ikuslea barnerat. Baten gainean ezarriak dire familiaren harmak. Barnean etxe horrek duken gauzarik miresgarriena, ganbera batean, harrian, hitz harriz finkaturik: *Johans de Sosiondo, evesca de Bayona, Dieu vous soit en ayde*: Sosiondoko Juanes, Baionako Apezpiku, Jainkoak lagun zitzatela».

Etxe zahartzat eman detzazkegu orobat Martzeena, hirur Chouriotarren etxea; Hargibelia, mentura Baionan sorgintzat erre zuten d'Argui-

bel jaun apez xahar dohakabearen etxea... eta bertze zenbeit. Bainan egoitza zahar baino berri gehiago da Azkainen. Ez da harritzeko: Mila zortzi ehun eta hamabortzean, Wellington jeneral anglesaren hoboitabortz kanoiak Larrundik orroz az hasi zirelarik bazterrak laster garbitu zituzketen! Geroztik harria harriaren ondotik erori direnak bertzalde!

Etxe zaharreri zor zaioten amodio guziaren gatik, hemen hau erran behar dugu, segur berriek ez diotela etxe zaharreri zorrik eta gure arbasoak laster eta laster laketuko luketela Haraneder, Dorre, Larralde, Etxola eta Hargine-ne batzuetan! Hain begikoak dire! Hain xuriak! Hain garbiak! Hain alegerak!

*«Ikusten duzu goizean,
Argia hasten denean,
Menditto baten gainean,
Etxe ttipitto, aintzin xuri bat,
Lau haitz ondoren erdian...».*

Eta holako etxeak nun-nahi badire orai Azkainen! Ez plazan bakarrik, bainan nun-nahi: Men-

dixkan, Portuan, Serresen, Aldagaraian, Mortzelaien! Damurik Iparragerria, Ameztoa eta Hartzaldea deitzeko orde zenbeitek deitu dituzte «Ene Ametsa», «Aski zaut» eta «Gure Doia»!

Hau aitortu behar dugu haatik: hamarretarik bederatzietan holako izenak ematen dituztenak ez dire Euskaldunak: nunbeitik etorririk Azkainen kokatuak dire bakarrik! Egiazko Azkaindarrek nahiago dituzten lehengo Sarrola, Uharte, Haizpe, Aztarritz eta Antsorloak...

Zer nahuzue! *Aita Ricci* famatu haren idurikoak egin gaitu Jainkoak, eta harek bezala erraiten dugu, eta beti erranen: «*Sint ut sunt, aut non sint!!*»...

ELIZA

Norat-nahi joanik ere, eliza guti da Azkainekoa baino ederragorik, ala kanpo bere harri pikatu xoragarriarekin, ala barnez bere aldare urreztatu eta hirur galeria aberatsekin! Begiak nola ez ditu betetzen kanpo ederrak, eta barneak nola ez ditu bihotzak perekatzen! Bai, egiazko euskal-eliza bere dorre zabal eta azkarrarekin, itsasoko eta mendiko haize eroenak desafitzen dituena! Errana baita Donibane urak eremanen duela, Sara suak eta Azkaine haizeak, irri egiten du hortaz Azkaineko elizak bere dorrearen gibelean. Hamaseigarren mendekoa da...

Hirur ate baditu jendea sartzeko, handi bat eta bi arteko. Ez litake ate horietaz deus erraitekorik duela zenbeit urte erretor batek ez balio buruari eman hirur ate sobera zirela eta bat bederen behar zuela kendu. Plazari dagon atea kentzea deliberatu zuen. Etzuten utzi, beharrik, ate horrek baititu mila oroitzapen! Bertzeak ber-

tze jitoen atea da. Jitoen atea, edo buhamiena, edo kazkarotena, nahi duzuen bezala...

Jitoak zer dire? Eri batzuen haurrak. Lepra erraiten dioten gaitz itsusi bezen ikaragarriak gorputza guti edo aski jana ziotelakotz, nihork etzituen jitoak ikusi nahi. Etzuten karriketari ibili behar, etziren haizu iturrietaratu. Orotarik urrun behar zuten bizi, mendiko harpe edo oihan zokotetan. Elizan berean etzitzazken bere ur-benedikatu untzian baizik eriak busti. Huna hitzez hitz dohakaberi zer manatzen dioten Xuberoko legeak: *«Tu bâtiras ta maison dans les sites écartés et déserts, loin de nos habitations et de nos villes: l'on t'assignera la porte par laquelle tu dois entrer à l'église, le bénitier où tu trouveras l'eau lustrale et les galeries où il te sera permis de prendre place, semblable à la brebis infectée que l'on sépare du troupeau...»*. (A. Chaho). Alabainan, lepra bezalako gaitzarekin!

Bertzalde, jitoek ez dute odol bera. Baitezpada ez balinbadakigu gure etorkia, badakigu bederen ez dugula ikustekorik Indiako erresumarekin... eta jitoak handik heldu dire. Hamabortzgarren mendean Tamerlan gerlari tartaro fama-

tuak zafratu zituen jitoak eta menetik urrundu. Espainian kokatu ziren lehenik; handik ere fuera-tu zituen Felipe Hirugarrenak. Orduan bidetik biderat etorri ziren Euskal-Herrirat eta hemen kokatu. Egia hau da, Euskaldunek etzituzten aise onartu. Badakizue Urrunako jaun erretorak igande batez zer erran omen zioten Urrunarreri? «Giristino maiteak, balio ote du predikalkitik erran dezazuedan ez dela gisa, batere gisa, ondo hautan kokatu diren jitoekin gurutzatzea? Arraza madariakaturia da!».

Holako oroitzapenak dituen aterik ez da kendu behar elizetan, zeruko eta lurreko *Commission des Arts* guzien baimenarekin ere! Eta bertzalde nork daki gure herrietarat nor etorriko den oraino eta zoin atetarik sar-arazi beharko ditugun!

Jitoak hortan utzirik aipa detzagun eliza barneko ikusgarri zenbeit. Hango hobi batzu lehenik, urteek eta herritar gehien axola ttipiak ahantzarazi baino lehen. Huna hamabortz, lerro lerro, hitzak arras janak ez dituztenak oraino:

1. Maître Jean de Miguelena — licencié et curé d'Ascain 1620...

2. Maistre Marin de Michel — prestre décéda
2 de mars 1622...
3. Hau da thomba d'Arraioaga — Azkaingo
Indiano Jaunarena — 1631...
4. Raimond Zougarrete — preste — 1637...
5. Sacerdos et vicarius — 1637...
6. Hic jacet Petrus d'Errecarts — pietate cla-
rus, qui obiit anno 1748...
7. Bertran Durritzague — décédé le onzième
de novembre 1649...
8. Miguel Martiareneko — sepulture 1653...
9. Hau da thomba Etchecharekoa — 1667...
10. Sempere Olhagaraiko sepultura: Miguel
d'Olhagaray — 1674...
11. Haurtiareneko Etxearen sepultura: Joani
Detchegarai — 1677...
12. Miguel Detchavez — Larochoareneko
sepultura — 1692...
13. Tombe de Joanes d'Astarritz et de Mari
Hiribarren — 1703...
14. Robert Petit Changoreneco Yauna hila
Oxailaren 22 — 1836...
15. Barrendeguy — 1836...

Eta bertze bi hobi noizkoak diren erraiten ez dutenak: lehena hitz haukiekin:

«Cethabereneko tonbatik hunarainokoak Askain-errotakoak dire». Eta bigarrena:

«Sépulture de Ascain-erota».

Iduri luke kasik bi hobi hauk bederen kanpotik ekarriak direla eliza barnerat. Bainan noiz? zertako? Eta guzien buruan nork finka deusik?

Eliza barneko hobietarik arras urrundu gabe, norbeitek nahi du zerbeit jakin hamalagarreanean ehortzia den Robert Petit jaunaz? Robert Petit norbeit zen herrian eta herritik kanpo. d'Argain idazleak erraiten daukunaz: *«Le 29 Messidor 1796, Robert Petit d'Ascain, établissant ses malheurs personnels, sa fuite à l'étranger, son incertitude pour entrer de son exil dans un pays où le sang coulait par flots sur les échafauds, et dépaignant la désolation de Sare et d'Ascain, communes le plus éprouvées du canton, demande à se faire rayer de la liste des émigrés et à faire lever le sequestre de ses biens. Satisfaction lui est ici donnée dès le 22 juillet suivant»*. Bai, norbeit zen Robert Petit...

Eliza barneko hobieri behatu behar bada, dorrea ikusgarriago da oraino. Denboraz dorre hortan egiten ziren herriko buruzagien bilkurark, Azkaindarrek egungo egunean oraino *baldarra* deitzen duten barnean. Horra dudarik gabe auzapezari «baldar-apeza» zertako erraiten zitzaion Azkainen denbora batez, Hiribarrenek dionaz:

*«Baldar-apez Azkainen Hirigoyen handi,
Zuhurki dakarkena kargua aspaldi,
Aitortzen dute orok herri gidatzeko
Ez ditekela kausi hainitz hobeago...».*

Baldarra, dorreko lehen maila da. Hirugarrenerraino joan behar da ezkilen ikusteko. Hirur ezkila eder, pesta egunetan herria ederki inarosten dutenak. Hauzo herri handietakoeri batera ez dute zorrik. Eta ezkilen ondotik zer ikusgarriak, dela itsasoko alderat, dela mendirat! Begien asea!

Hainitz liburu eta agerkaritan Azkaineko ezki-la dorreaz zer edo zer irakurturik, ondikotz ez dugu gehiago gogoan «*Pays Basque*» delako

agerkarian ikusia baizik: «*A Ascain l'église mérite une visite avec son sombre clocher qui sert surtout de forteresse aux habitants, quand il leur prenait fantaisie de résister à l'autorité royale*». Nunbeit zerbeit bada. Hau naski: Louis Gayan idazleaz erranik dakigu: Lapurdiko biltzarrean bere kargua atxikitzeke, Martin Chourio azkaindarrak ezkila dorrerat bildu zituen lagun batzu eta urrunerat ikusirik, etsaieri, harrika, oihuka eta ez dakigu nola, menturaz tiroka, oroitzeke ongi-etorria egin! Hau ere egia da: 1906ean eliza-miatzeak eginarazi zituelarik orduko gobernamendu higuingarriak, herriko gazte gehienak ezkila-dorrean zain egon ziren noiz agertuko ziren miatzaileak eta, ikusi zituzteneko hirur ezkilak brandan eman zituzten herri guziari jakinarazteko ohoinak han zirela. Populu guzia lasterka bildu zen elizarat eta Clerch dohakabeak, putza biribil, egin zuen bere lana... litania ederrak aditurik.

Eliza inguruan bide bat badute berri-berritan egina. Dena graba, ederki-artatzen du norbeitek. Beharrezkoa da. Bainan ez dugu gogoia gordeko: huts egiten daukute, bidea egiteko errotik atera

zituzten agina batzuek! Beti perde, uda eta negu, halako edergailuak ziren eliza zaharraren aldean!

Eliza aipatu-eta, nola ez aipa eliza gizona? Ez gitazke, ondikotz, nahi bezen gora joan paper zaharretan, doidoia ehun-eta-berrogoita-hamar bat urtetaraino: erreak omen dire aintzineko paper guziak. Huna, bainan lasterka bezala emanak, Azkainen geroztik izan diren erretoren izenak: Rivière, 1803 — Joffroi, 1811 — Laphitz, 1814 — Larramendy, 1817 — Guiresse, 1843 — Larralde, 1852 — Larreguy, 1856 — Landalde, 1858 — Hiriart, 1865 — Elissalt, 1890 — Etcheverry, 1907 — Eyherabide, 1911 — Débidart, 1920 Ibarart, 1938. Hor bi erretor bederen badire herritik, ongi laketurik, joan zirenak... bertze mundurat, Larramendy eta Hiriart.

Bainan herriko xaharretarik adakigu Guiresse bat ere arras laketzen hasia zela... herritik fuertu zutelarik. Bitxi aire bat omen zuen... eta maingua zen. Bederatzi urteren buruko Azkaindarrak ase zituen, leporaino ase, hala nun jaun Apezpi-kuak bi letra ukan baitzituen, bat kontseiluko eta fabrikako jaunetarik, bertzea herritar andana

baten ganik, otoi erretor hura ken zezoten eta bertze bat igor; jansenista zenal; orenak eta orenak behar zirela kofesatzeko bereko; noiz-nahi Espainiaraino joan behar zutela barkamendua ukaiteko. Eta holako, Erretora etzen ixilik urrundu herritik. Igande batez populu guzia deitu zuen bezperetarat, adioak egin behar zituela. Adioak? Zer-nahi erran zioten eta bere katixima orroaz bururatu: «Azkaindarrak, madarikatzen zaituztet, madarikatzen Aitarren eta Semearen eta Izpiritu Sainduaren izenean!». Halako boza omen zuen erretor dohakabeak nun Porturaino aditu baitzuten katixima. Zenbeit ehun metra bada elizatik Porturat!

Denbora berean Azkainen bikario bezala eza-gutu dituzte hamahirur apez: Hiriart, Galharrague, Magis, Iribarne, Gurutchet, Bécas, Montalibet, Sein, Gaudin, Arotzarena, Camou, Carrère eta Héguy.

HIL-HERRIAK

Egunkari batean sekulako gudua ikusi izan dugu bi jakintsunen artean: hil-herriak behar den, ala hilharriak. Ez dugu auzi hori guk trenkatuko. Jean Barbier Senpereko erretor zena gu bino jakintsunago zen eta «hil-herriak» erraiten zuen; beha:

*«Elizaren ondoan, oi Euskaldun haurrak,
Gure hilen-herriak zoin diren ederrak!
Han dagozi bakean aitaso zaharrak,
Han ditut etzan nahi nik ere hezurak!»...*

Ondikotz, orotan bezala hil-herrietan ere urguilua hasia da sartzen eta nihork ez daki gehiago zer egin... auzoak baino gehiago egiteko! Ez ote lukete, hil-eta bederen, orok hein berean behar, orok bardin har eta lur egin behar dutenez geroz? Harri arrunt bat aski litzaukuke gurutze pollit bat aintzinean. Ez da hala, eta badakigu sekulan ez dela hala izanen... Ez du balio ohiko harriburua —*la stèle*— hemendik

goiti aipatzea: gero eta begitarte gutiago egiten diote Euskaldunek eta guziz Azkaindarrek. Sine-tsiko ote duzue Azkaineko bi hil-herrietan ez dugula harriburu bat baizik kausitu? Arras pollita haatik... eta sortzez Euskalduna etzen norbeitek nolazpeit beretua. 1657garrenean lantua da.

Azkaineko hobi zahar gehienak eliza barnean dire: hil-herrietan doidoia bat gelditzen da 1592garrenekoa: Martissans de Haranibar delakoarena. Nor ote zen? Ez dugu Jainkoaren liburu handian baizik ikasiko. Geroztikako hobietan badire haatik arras eta arras begikoak, hala-nola 1682garrenean hil eta ehortzi zuten Amerikano batena. Huna hitz larriz zer erraiten daukun harriak:

*«Hendaia, Ascain, Urruna
Hau da oroitzapena
Hirur elizena.
Lafargue da hemen
Errozue amen.
Hendaian sortu zen,
Urrun aberastu,
Ungitasuna zer den*

*Ez du ezagutu.
Bainan biziz hiltzeko
Hil da bizitzeko
Emaitzak hor bahi
Zer zukeien nahi!».*

Lafargue amerikanoa bezela, Azkaineko Hilherrietan dagozi munduaren akabantzaraino hainbertze azkaindar apez, bertzeak bertze: batzu, orok ezagutu dituztenak; bertzeak, ixiltasunean ongi bera egin dutenak: Doyhambéhère, Heuty, Dominique eta Jean Berterretche, Esteban Lapeyre, Bertrand Arramendy. Sasiak itoa, ez dugu aise atxeman Martin Hiribarren geroxago aipatu gogo dugun jaun kalonje famatuaren harria, ez-eta ere gure begi xaharrekin aise irakurtu harri hortan 1866garrenean latinez ezarri zuten hitz lerroa: «*Expectans resurrectionem mortuorum jacet et dormit Martinus Hiribarren Baionensis canonicus ad honorem, qui annis XXX parochiali munere fungens, ingenio, doctrina, pietate eluxit. Obiit anno Domini 1866*».

Badakizue zer gogoratzen daukun Martin Hiribarren jaun kalonjearen harri sasia itoak?

Azkaineko hil-herrien sartze-sartzean baitezpada harri eder bat behar litakela, herritar apezek Azkaindarrak oroit-araziko dituenak: zer predikua ez litake han lerro-lerro irakurtzea izen hauk:

Aita Clement kaputxinoa — Sabadinabaita.

Duhalde jesuista — Uhaldea.

Chourio Imitazionearen egilea — Martzenia.

Hiribarren kalonjea — Finondoa.

Lapeyre kalonjea — Luisbaita.

Lapeyre beneditanoa — Luisbaita.

Doyhambehere apez-nausia — Errebira.

Berterretche bi anaiak — Elizaldea.

Larronde bi anaiak — Lamberbaita.

Jean-Blaise Gracy apezpikua — Haranederria.

Joseph Gracy apez-gei gerlan hila — Haranederria.

Martin Lasconateguy apez-gei gerlan hil — Haranederria.

François Etchenique beneditanoa — Azku-bea.

Nork daki izen horien irakurtzeak ez ote luken apez egiteko gutizia bihotz ttipi batzuetan sor-araziko? Orduan ez litazke debalde igorriak izanen oroitzapen horren egiteko —Larrungo harri-

tik egiteko— behar litazken ehun edo berrehun mila liberak. Holako obran Azkaindar guziek gogotik parte har lezaketela daukagu...

Arruntean Azkaineko hil-herriak asi ongi atxi-kiak dire: belarra nihun ez da nausitu, gehiago jaberik ez duten hobi bakar batzuetan baizik. Ez da beraz segur Azkaindarren gatik errana izan: «Hilak laster doazi...!».

Serresen ere ba omen ziren hil-herriak, lehen hango kaperaren aintzinean. Xahar zenbait oraino oroit litazke han harriburu batzu ikusirik. Ondikotz, harriburu guziak suntsitu dire handik ere: ohoinek ereman dituzte hango edo hemengo biltegietan gordetzeko. Bat gelditzen da haatik Serresen ere, 1601koa: Teilarian ikus dezake nahi duenak ategainean landatua, Bihotz Sakratu baten aldean. Nori esker? Guziek aisegi irri egiten zioten Jean Sougarret ermitauari esker. Oi, oroitzapen zahar horien salbatzeko guk ere baginaki zerbeiten egiten!

Eta Larrungo mendian ez ote da behinere izan hil-herririk? Baietz erraiten zuen erroitik Jose Errandonea, gure mendia hain ongi ezagutzen zuen Azkaindarrak. Verako aldean omen ziren

hil-herriak, xiloska batean. Behinik behin badakigu Jose Errandoneak han atxeman izan duela harriburu bat arras pallita. Amodiorekin harrokarte batean gorde zuen, Jean Sougarret bere adixkideari sekretua fidatu... eta laster harriburua handik galdu! Denboraren buruan badakizue nun ikusi zuen? «Emperator» Larrun puntan egin ostatu baten murruan! Handik ere joana da orai, ondikotz! Ohoinak!!!

Pierre Larzabal, gure herritar gazte bat da, suhar eta langilea. Bada, horra nun eskurat heldu zaukun 1934garrenean, haurrentzat egin urtekari pollit bat, *Gauden gu Euskaldun*, eta urtekari hortan gure herritarrak ager-arazi lantto bat. Huna lehen-lehen hitzak: «Orok badakite nola bazen lehenago Larrungo mendian hil-herri aipatu bat. Aspaldiko denboretan jendeak hiltzen zituztelarik jainko faltsoeri atsegin egiteko, heien gorputzak han ehorzten zituzten...».

Hil-herriak segurki izan dire beraz Larrunen? Gure adixkideari «*onus probandi*»! Jose Errandonearen harriburu bakar eta Pierre Larzabalen lan ederraren gatik, duda bat gelditzen zauku oraino. Baditake segurki noizpeit norbeit ehortzi izan

duten Larrunen, Clemenceau bat baratze batean berak galdeturik ehortzi zuten bezala, herriko Madalena Larralde bat edo mugazain kaskoinek hil kontrabandist zenbeit han ehortzi duten, hartako edo hortako, —ez ditakenik ez da—, baina Larrungo bidexketan hezurren gainean ibili behar dela? Hori ez, ez, eta ez! Nun-eta ez diren ardi zahar, ahuntz, pottoka eta betizoen hezurrak!

Philippe Veyrin idazle ezagutuaren liburu batean irakur ditake: *«A l'âge de Fer (dont le terme confine aux temps historiques) appartiennent les nombreuses sépultures à incinérations entourées d'un cromlech, enceinte circulaire de pierres levées. In en existe dix-sept fort connus au Pic d'Occabé, dans l'Iraty: on en a signalé d'autres en Labourd sur l'Hartzamendi et à la Rhune. Les paysans basques savent par tradition que ce sont de tombes»*. Jaun horrek ez nihork ez du Larrunen «Cromlech» direlakoetarik ikusi, Korrale handiak, ardi geriza batzu, dauzku horientzat hartu!!!

IKUSGARRI BATZU

Lerro hauk irakurtu-eta norbeitek erran dezake guti aski dugula xoratzeko. Zer nahi duzu, aspaldi du Horace pertsulariak erran zuela: «*Paupertas impulit audax ut versus facerem*», eta hari bezala gure gutia aski zauku atseginez betetzeko!!!

Hainitz Azkaindar hil zen 1914-etik 1918-rai-noko gerla ikaragarrian. Gizon iresle handi eta handiak dire orai xixpa eta kanoiak, ondoko gerletan zer egingen badu ere Atomikak. Azkaine ez da bertze herriak baino gutiago, eta sosaren puntan, bere gerlako hilez beti oroitarazteko, Larrungo harri ederrenetik *Maxime Real del Sarte* harri-lantzale famatuari obra bat eginarazi zion. Eta elizatik bi urratsetan orai obra eder bat ikusi ditake, lehengo apez-etxea zen tokian, lore pollitenez inguratua! Mutiko gazte eder bat xutik. Ama aldean, ogi lerro batzuetan jarria. Bai ama, bai semea, xoragarriki lantuak. Ageri da erregetiarra dela Maxime Real del Sarte, erregetiarrek kantatzen baitute:

*«Demain sur nos tombeaux
Les blés seront plus beaux!»...*

Beheraxago euskaraz eta hitz larri ederrez bi pertsu hauk:

*«Gudian hil baitziren gure beiratzeko,
Bakean ez ditugu nihoiz ahantziko!».*

eta harriaren gibelean lerro-lerro gerlan hil Azkaindar guzien izenak. Hainitz izen! Oi, zer predikua hogoi urtetarat doan gazteriarentzat, herriko pesta guziak egiten diren lekuan!

Aspaldikoa da Uhertsiko zubia. Erromano famatuen denborakoa, diotenaz. Ageri du zaharra dela, harriaren ondotik harria lurrerat edo hobeki urerat baitoa. Frantziako gobernuak 1925-ean bere gain hartu zuen *monument historique* bezala, eta Azkainen nihork ez du dretxorik bi palotara morteroren han ezartzeko. Joan behar du beraz zubi gaixoak, gure gobernuaren aztaparretaratzen diren guziak doazin bezala!

Emeki batzuetan, segurki beti! «*Una salus victis, nullam sperare salutem...*».

Azkainerat nihor ez ditake joan plazarat orduko bi ostatu eder ikusi gabe, *Hôtel de la Rhune* eta *Etchola*. Azken-azken moldeko ostatuetarik bat eta bertzea, beren barne eta baratze xoragarrikin! Garbiak, arinak, gisa guziez gustagarriak! Bainan bereziki *Etcholarat* sartzen dena ez dadiela handik atera *Livre d'Or* delakoa nausiari galdetu gabe. Ikustea balio du. Oi, hango izen handi lerroa! *Paul Deschanel, prince de Galles, Barthou, Clarétie, général Pineau, Mistinguett, Petrovitch, Grand duc de Russie, Pierlot, Aguirre'tar Joseba, comtesse de Bagnoux, Telesforo de Monzon, duchesse de Montebello, princesse de la Tour d'Auverge, Maxime Real del Sarte.*

Hots, asma ditaken handiera guzia! Bainan laket bada holako izenen ikustea, laketago da oraino iragaile batzuek liburuan ezarri dituzten espantu eta bitxikerien irakurtzea. Beha:

«*Etchola! On y arrive avec joie, on ne le quitte qu'avec regrets, on y revient avec la certitu-*

de, jamais démentie, d'y trouver un charme toujours nouveau».

Clément, avocat du barreau de Paris.

*«Il faut partir un jour, dit-on
Pour un voyage interminable,
Touriste las, morne et minable,
Dans les souterrains de Pluton!*

*Mais avant de vêtir la bure
Du pèlerin de l'au-delà,
Je viendrai revoir la garbure
Et le vin rosé d'Etchola...!».*

Georges Martin

Eta orai Euskararen aldi, bainan ez espantu gutiagorekin haatik:

*«Nola busti,
Hala bizi!
Biba Eskual-Herria!»*

Jean Ybarnegaray, deputatua.

«Hazilaren hogoita-sei-zazpietan, 1930-ean, Euskaltzaindia Azkainen bildurik, Euskaltzaindiko jaunek Etcholan jan dute eta lo egin, eta orai Etcholako nausiari erran nahi diote, berritz ere itzuliko direla hunat, nihun, nihun ez baititake hobeki jan, hobeki edan, hobeki lo egin! Gora, gora, gora Etchola!». Resurrecion de Azcue, Julio de Urkijo, Severo de Altube, Georges Lacombre, Jean Elissalde, aita Intza, Ormaetxea, Maidagan, Intzagaray, Olabide jesuista.

Nahiz ez Azkaine ez Azkaindarrak ez dituen naski hainitz kilikatzen Euskaltzaindiak, behin Azkainerat etorri zenaz geroz batasun handian Azkaindar bat sar-arazteko, erran dezagun bi hitzez zer den. Zer den? Euskaltzale handi batzuen batasuna. «*L'Académie française*» frantsesaren zaintzeko eta aberasteko eginda den bezala, Euskaltzaindia euskararen zaintzeko, laguntzeko eta aberasteko egina da. Onatin sortu zen 1919-an. Han etzen haatik lau Euskaltzain baizik sortu: don Resurrecion de Azcue, Julio de Urkijo, Luis de Eleizalde, Arturo Campion. Bertzeak etzituzten zenbeit hilabeteren bururan baizik hautatu, Donostiako bilkura batean: zor-

tzi, eta zortzi horietan Pierre Broussain, Adéma jaun kalonjea eta aita Pierre Lhande. Etzuen kargua onartu Adéma jaun kalonjeak, bere egitekoekin etzuela astirik hilabete guziz Bizkaian barna ibiltzeko eta berehala Martin Landerretche apeza hautatua izan zen ordaintzat. Jaun horietarik gehien gehienak hilak dire orai, baina Euskaltzaindia bizi da beti Etchaide, Severo de Altube, Angel Irigaray, Louis Dassance, Pierre Lafitte ta Oxobi batzuekin.

Euskarak badu holako laguntzalen beharra. «*Ad multos annos!*», Jaunak...

AZKAINARRAK

Huna egia: ez dugu behinere irakurtu ez eta nihori aditu Azkainen sekulan izan dela orai bezenbat arima: neguan hamabortz-hamasei ehun, udan menturaz mila gehiago...

Ez du balio udatiarrak aipatzea: ez dire Azkainen zenbeit egunentzat baizik, hilabete pare batentzat gorenetik. Erran dezagun haatik zenbeitek urteak badituztela Azkainen dabiltzala, eta maite dute...

Azkaindarra ote dire, egiazko Azkaindarrak, neguko hamabortz-hamasei ehunak? Ez, zorigaitzez. Bizpahirur ehun badire nunbeitkoak, kas-koin, espainol edo turko, herriaz agradaturik geldituak, batzu etxe zaharrak erosi eta berriturik, bertzeak egoitza berriak eginik. Azkaindartzeko ote dire denborarekin? Ez guziak... agian!

Egiazko Azkaindar zenbat ote da? Azkaindarrak zer aditzen den! Azkaindar balinbadauzkagu bakarrik berrogoita hamar urte huntan gutienik Azkainen direnak, jauzian jautsi behar dugu mila edo bederatzi ehunetarat. Eta egundainotik

Azkainen direnak hartuz bakarrik, nork daki ez ginuken hiruzpalau ehunetarat jautsi behar?

Udazkeneko hotz berriekin hostoak lurrerat joaiten dire: orobat etxeak denborarekin. Baina berriz altxatzen dire etxeak: ez ditake beraz etxetarik juja nor den Azkaindarra. Segurago iduritzen zauku paper zaharretako izenen ondotik ibiltzea.

Izen hainitz bada galdurik Azkainen, oro oraiko Amaïoren, Ascazibar, Barandiaran, Chotil, Sarraioague, Dordogoity, Elzaurdy, Ezezabarrena, Ermua, Etcharberry, Etcheguia, Fagondo, Gabarain, Goya, Haranibar, Ipharraguerre, Labayen, Labandibar, Larrandaburu, Legarralde, Leholaberry, Leiza, Lissardy, Lizarza, Mendibe, Nalbarte, Olhaber, Oriozabala, Oxabide, Saralegui, Urbieta, Urtizberrea, Zelhayeta... oro oraiko Dumont eta Durant batzu baino usain hobekoak, egia aitortu nahi badugu!

Huna oraino lehengo izenetarik Azkainen bizi direnak: Andiazabal, Barnetche, Barrendeguy, Dornaletche, Dourritçague, Elizagaray, Elissalde, Etcheberry, Etchezarreta, Goenaga, Hiribarren, Ibarbide, Ibarburu, Larralde, Larregain, Larron-

de, Olaizola, Olhagary, Oyhanto, Salaberry, Sorriguieta, Sougarret, Teilary, Tucoulet.

Azkainen bada haatik bertze izen frango aspaldi eta aspaldi aditzen denik: ez dakigu xuxen noiz sartuak diren. Huna lumaren puntar rat heldu zauzkun bezala, zenbeit bederen: Aspirat, Camino, Dupere, Gracy, Laduche, Lapeyre, Minier. Aspaldi aditzen diren izenak segurki eta ongi azkainduak, herriko kargu handienetan direnaz geroz orai ere zenbeit.

Eta guzien buruan zerk frogatzen dauku izen zaharretan ere hau eta hura egiazko eta egundainoko Azkainduak direla eta ez Urrunatik edo Saratik edo Espainiatik Azkaineratuak? Deusek. Edo izen berak behar litazke mendetik menderat etxe beretan kausitu! Nor lot holako lanari?

Herri bakotxak badu bere bizia, badu bere izaitea, badu bere moldea. Kanpotik heldu denak ez ditu aise hartuko eta beretuko. Beldurrago gintazke galaraziko dituela herrikoeri. Duela hogoibat urte zoin ederki etzaukun hori Azkainen predikalkitik erran Boroira Senpereko jaun erretorak Pilotarien-Egunean: «Zer dugu ikusi Euskal-Herrian? Euskalduna kanpotiartzen bere ohi-

duretan, bere mintzairan, bere jostetan, bere soinekoetan, eta, zorigaitzez, kanpotiartzen bere sinestean! Eta hemen salatuko ote dugu, ahalgea kopetan, gure begiz ikusi dugun zerbeit? Azkaindar neskaxa bat *short* direlako galtza motz petrailak soinean plazaren erdian! Ezkondua da geroztik Euskaldun frantximant batekin. Tantiruri, neskak eta mutilak elgar iduri! Eta zenbat haur ttipi karrikan eta karrikatik kanpo katiximaren frantsesez ikasten hasiak! Euskararentzat mentura txarra beraz Azkainen nun eta ez dugun zaharrak, Artha harriz egin obrak Donibanenen itsasoaren oldarrari bezala, buru egiten itsas-hegi guzian ala den frantximankeria zozoarri! Euskara utzi gabe frantsesa ikas ez balitake bezala, «*mamazel Urguilu!*». Eta zer diozue, pilota utzirik, *foot-ball* basa bat herrian sar-arazi nahi luketen mutiko gazte batzuez? Azkaindarrrek, egiazko Azkaindarrak, behar lukete *Larru* eta *Ottarre* batzuen pilota maitatu, *Chourio*, *Lapeyre* eta *Hiribarren* batzuen euskara mintzatu, eta ez uste izan Azkaineko euskara ez dela on herritik kanpo agertzeko. Badakizue zer erraiten duen bere liburuetarik batean Etchepare jaun

miriku euskalzaleak? «Azkaine, euskara mintzatzaille ederren herria!». Tira tantoa, Azkaindarrak, eta ez otoi ihardets frantsesez ederki predikatu zuela erran zioten apez espainolak bezala: «*C'est une mensonge, mais ça mé fait plaisir quand même!*». Ez ditugu gure buruak behar den baino gehiago apaldu behar! Azkaindarrak Azkainen, Azkaindarrak Azkaindar «beren ohidurretan, bere mintzairan, beren jostetan» edo zer ez lezake erran Chaubadon gure herritar famatuak, jada erraitekoak zituen kaputxin suharrak!

*«Paristik landa zuen minekin ikusi
Dantza-korda zutela Azkaindarrek utzi!
Lehengo igandetan, lerroan guziak,
Estaltzen zituztela plazako hegiak,
Ematen ziren xutik, atsegina dari,
Mokanesak hedatuz zaharrek gazteri.
Agure zaharrena jartzen zen buruan,
Erramuzko adar bat zuela eskuan,
Hark, zuen lehenari mokanes hedatzen
Eta guziak ziren saltoka segitzen...».*

Hiribarren

Aditzeko errextasunaren gatik, Hiribarrenen pertsuetan hitz berri zenbeit eman ditugula aitorturik, erran dezagun ere dantza-korda etzela Azkainen dantzatzen bakarrik, ez-eta beti Azkainen bezala. Bertzeak bertze, badakigu herriko xaharrek erranik, Gerezietan bederen, agure zaharrenaren orde, etxeko-alaba handiena zela korda-buru, erramuzko adarra eskuan.

* * *

Paper zaharretako izenak aipatu ditugu goraxago: deiturak, erran beharko ginuean. Baina Azkainen ez ote da deitura bezenbat izen galdu? Marixume, Ganaurra eta Xabier batzu utzirik zer hartu dute? Arlette, Gisèle eta Nicole nunbeitika-koak. Pagano izen batzu hamarretarik bederatzietan. Oi, izenetan euskaldunena, Xabiera utz? Etcheberri, Chaberi, Xabier! Landalde erretorenaren bataiotako liburutik hartua dugu Xabieraren izena: Alzugaray Xabiera. Oi, lehengo izen ederrak! Oi, lehengo izen maiteak!

* * *

Huna zerbeit orai bere berant-airea barkatu-ko diozuen: egiari zor zaio hedatzea. Doidoia lerroetan Azkaindarrak nor diren irakurtu eta, badakizue zartalakoan zer erran daukun, berrogoita hamar urte huntan urrun bizi delarik, Azkaine guk bezen maite duen norbeitek? «*Azkaindarra nor den? Ni! Azkaindarra nor den? Zu! Han sortuak, han handituak, biziak barreiatu gaitu eta urrun ereman, bainan egundaino gure bihotza eta gure gogoa Azkainen egon dire!*». Ez zitazken galtzerat utz holako ele pollitak! Oxala, oxala hola mintzo balire, hiriak eta hiriko lilluramenduek burua harturik, Larrun handiaren itzal maiteari betikotz ihes egin duten dohakabeak! Azkaine ukatzea, lurreko zeruaren ukatzea zauku...

LARRUNEN

Nahuzue itzuli bat egin dezagun Esnaur, Bizkartzu eta Larrun, Azkaineko hirur mendietan? Balio du.

Sarako aldetik elizari beha dago Esnaur: beha ere Donibane Lohitzuneko eta Hendaiako itsaso ederrari.

Bizkartzun, Senperako alderat, alfer bat bezala, zabal-zaala etzana ikusten dugu Arraioko aintzinean.

Esnaur eta Bizkartzun, bi mendi eder segurki, bat pazka leku aski aberatsa bezen, murriz eta harritsua bertzea. Bat eta bertzean zer-nahi gaztain bazen gure haur denboran: orai bat ez da nihun gehiago ageri. Egungo Azkaindarrek ez dute lehengoek bezala egiten, «Zuhaitz bat aurkitzen zutenean, biga landatzen». Sekulan gaitzeru bat gaztain nahi badute Eguberri arratseko, gure ondokoek —jada guk egiten dugun bezala— Baigorri edo Bankan erdarak dion bezala «beti denbora da ongi egiteko». Landa

detzagun beraz gaztainak Esnaur eta Bizkartzuenen! landa ehunka! landa milaka!...

Eta goazen Larrungo alderat Ximeldegiko bordan barna! Borda hortarik goraxago behako bat eman nahiko diogu Giltzurri-Harria delako harrokari. Lehen Santsunen harroka deitzen omen zuten. Huna zertako. Ixtorio Sainduko Santsun famatua behin Espainiatik Frantziarat sartu nahiz zabilalarik, Donibandarrek etzioten baime-nik eman. Orduan, errabiaren errabiaz, Santsunek harroka bat hartu zuen bizkarrean Donibane-ko buruzagien, zorri batzu bezala lehertzeko, bainan bidean lerratu zen, eta orai ikusten den tokian erortzerat utzi harroka, Giltzurri-Harria...

Zer ote da Larrun? «Larre on», «Larre urrun» ala «Larre harridun»? Bat eta bertzea finkatu daukutenak badire: guretzat ez da mendietan maitagarriena baizik! Oriko xoria Orin laket...

Hoinbertze erraiteko denean, nundik has? Hastetik edo bederen ahal dugun bezen urrun-dik. Menturaz Paueko eta guziz Bordeleko liburu eta paper zaharren biltegietarat joaiten bagine, han zer edo zer kausi ginezake Nahasmendu-Handiaren denborakoa. Hainitz Azkaindar herri-

tik urrundu eta desterratu zuten gaixtoek, trapu
tzar batzu bezela erabili, eta frangotan sabela
arinik atxiki:

*«Jende aisiakoa, gateak emanik,
Egorri Frantziarat, sabela arinik:
Han gosetez hil dire gure arbasoak,
Gapoinez asetzean kaskoin harrizkoak».*

Hiribarren

bainan ez da dudarik bat baino gehiago joan
zitzaiotela ihes Espainiarat eta ere Larrungo
zoko batzuetarat. Ondikotz, ez dugu behinere
errextasunik ukan Paueko eta Bordeleko paper
biltegietan ibiltzeko! Ez dakigu beraz ordukorik...

Geroxagoko paperetan ikusten dugu Larrun-
go mendiaren lehen aipua. Eskolan ibili direnek
behin edo bertze aditu dute Wellington jeneral
agelesaz mintzaten. Gure mendi maitea etsaiek
ordu arte ez baitzuten segur zangopetan ibili,
jeneral horrek egin zuen mila-zortzi-ehun-eta-
hamahiruan. Gazteizeko inguruetan zafraldi bat
ederra harturik, herriko mugetarat itzuliak ziren
—ez naski nahi bezen laster— Frantziako solda-

doak. Jada *Helbarrunen Suhastean* gordea zagon tropen aintzindari Joseph erregea, Napoleonen anaia; etzakien gehiago zer egin, norat joka. Napoleonek buruzagigoa kendu zion eta Soult marexalari eman. Gerlari handia hau: berehala lanari eman zen, bainan Wellington aintzindu zitzaion eta burua itzul artean Larrungo mendiaz jabetu. Han zen gakoa. Hgoita bortz kanoi Ihizel-haien barna landaturik, atxatxo Frantseseri lekuak hutsarazi ziozkaten Uztaritzeko oihanetarraino!

Larrun aipatu-eta, ez da batere gure xedea gerlarieri urrunago jarraikitzeke, bainan bitxiaren bitxiar erran dezagun halere nola Uztaritzar batek Angelesak zakuan sartu zituen. Senpereko bideberrian barna zoazin jada hauk, lorios eta hantuak, eta Uztaritzarrak harrituak noiz ikusi behar zituzten. Ez dakigu harrituenak etziren herriko buruzagiak. Mutiko gazte bat, futitu bat, joan zitzaioten, orok Moro erraiten ziotena, herriko buruzagieri herriko-etxerat:

—«Nahi duzue nik Angeles horiek Uztaritzetik urruntzea?

—Hik? Nola egingen duk balentria hori?

—Bego hori ene gain! Emadazue bakarrik orga pare bat eta barrika bat arno?...».

Eman ziozkaten eta Moro abiatu zen Senpereko alderat, xixtuz eta kantuz, karrikako emazte xahar guziak elizarat bildurik otoitzean zaude-larik. Bide-gurutzean atxeman zituen Angelesak. Geldiarazi zuten.

—«Norat hoa, seme?»

—Senpererat.

—Zer deramak barrika hortan?

—Jainkoa bera mozkorrraraz lezaken Pattareko arnotto bat, bainan ez da zuek milikatzekoa!

—Ez guk milikatzeko? Ikusi duk».

Barrika ideki zuten, hustu eta mozkortu. Hala mozkortu nun baten ere ez baitzuen gehiago bidea ikusten! Mila mehatxurekin, Morori galde-tu zioten Uztaritzeko karrikarat gida zetzan. Baietz... bainan Mugerrerat ereman zituen, freskatzeko astirik utzi gabe! Jeneral Moro erraiten zioten handik goiti Uztariztarrek mutiko atrebituari... eta uste dugu izen hori jarraiki zaiotela ondokoeri Salesenbordan...

Ordu da itzul gaiten berritz Larrungo mendirat. Paul Deschanel gure errepublikako president

ohi bat barne, hainitz ikusliar izan bada Larrunen, bat ez da izan Napoleon III enperadorearen heinekorik. Miarritzen iragan baitzuen 1859-ko uda, nahi izan zuen Larrungo mendia ikusi, eta arratsalde batez, egin zuen hango itzulia sekulako jaun eta andereriarekin. *Gure Herria*-ren berrikerari batek, Azkaindar xahar bat 1926-ean atxemanik Napoleon Larrunen ikusi zuena, huna zer ele ibili zuten berrikerariak eta delako xaharrak, Napoleonen Larrungo itzuliaz:

—«Gero, Xemartin?

—Gero? Ori, Larrungo patarrari lotu ziren Sarako aldetik.

Uhaideko-bordan apairuxka bat egin zuten. Urrunago joan eta Ihezelhaien laxoan pilota partida bat egin zioten inguruetakoko pilotari hobere-
nek.

—Nor ziren?

—Xabat Teiletche, Mendixka eta Larralde Azkaineko jaun erretoraren izenak gogoan ditut, bainan nola oroit bertze bortzez? Partidarik lekorra, jozak eta emak fandangoetan arizan ziren oro.

—Oro?

—Oro segurki: Napoleonen anderea bera arizan zen, matela gorrituak, Fernando, Verako

Prede auzapezaren semearekin. Fernandok fandangotan etzuen parerik. Egia erran, etzuen bertze egiteko handirik... kontrabandarekin aitak ederki gizenduak baitziozkan etxeko lurrak! Dena dela, hanxet arizan ziren gogotisko bigak».

Napoleonen anderea Fernandorekin dantza ari den denboran, ahantzi gabe erran dezagun zer irakurtu dugun Olivier du Chastel-Teguy idazlearen liburu batean: «*Lorsque l'impératrice Eugénie demeurait à Biarritz et faisait des excursions aux alentours, elle se donnait le nom de comtesse de la Rhune*». Izen polliskoa eta menturaz Azkaineko neskatxa zenbeitek, balakite, atseginekin har lezaketena!

Erran gabe doa Azkaindarrek zerbeit kantatu ziotela Larrunen Eugenia andereari. Huna pertsu bat bederen:

«Izatu da Larrun gainerat,
Arranoen zero gorarat,
Begientzat bide handirat,
Handientzat tronu haltorak.
Agur, agur, agur, andre Eugenia,
Inperatiz guzien lilia!...».

Irakurtzaileak ez du hor ez irrik ez nigarrik eginen, ez baitu segurki kantu horrek balio, baina ba haatik bere buruari galdetuko Larrunen ba ote den bederen arranorik? Ezetz erraiten zuen Elie Prestat Baionako jakintsun batek. Uzta-ritzeko oihanean bat edo bertze ikus omen ditake noizean behinka, baina ez du gure eskualde-tan laketzen arranoak, erdaraz *aigle royal* erraiten zaion arranoak. Beraz, 1859-ko kantariak gezurra kantatu zioten Eugeniari? Ez, arras. Larrunen bada *le gypaëte barbu* delako hegaztin handi bat, Azkaindar eta Saratarrek, makur bada ere, «arrano gorria» erraiten diotena. Hemen gandi ikus ditaken hegaztin «harrapari» *rapace* handiena da. «Urte buru batetik bertzerat buruz-buru egin ditake Larrunen, ezen gizonaren gatik ez da hainitz kexatuko eta aise bere zokoetarik urrunduko». (*Gure Herria*, 1923 n^o 6). Bada bertze hegaztin bat Larrunen «arrano beltza» erraiten dioguna, *le vautour fauve*, baina «saia» deitzen dute Larramendi eta Harrietek beren hizte-gietan. Arras ezagut erretxa da arrano beltza

bere buru eta lepo larrutuetarik. Balitake hirur-
garren arrano mota bat, urrunetik urrunerat
Larrunen ikusten dena, «arrano urdina», erdaraz
le vautour moine naski, bainan ez dute Azkain-
dar, Saratar eta Beratarrek bertze bi motak
bezala ezagutzen. Egia erran, gutiz gehienek
badute arranoen ondotik ibiltzeaz bertzerik!
Lana lege...

Larrungo arrano gorri, beltz eta urdin guziak
baino gehiago baitziren Napoleon eta Eugenia,
arranoa baino lehenago aipatu ditugu. Aipa
detzagun ondotik ere Larrunen zertan ote zabil-
tzan? Begien ase baten ondotik segur. Ez ditake
amets zoin urrun eta zoin ederki ageri diren oro
Larrun puntatik. Xuri xuria, Baionatik eta Tarno-
setik aise haratago ikus ditake itsas-hegia. Badi-
re eta erraiten dutenak largabistekin, haize hego
batzuez, Bordeleko eliza-nausiko dorreak ikusi
dituztela! Bixta hainitz hetsiago da haatik Vera-
tik haratago: nihun ez da mendia mendiaren
ondotik baizik! Bainan Lapurdin deusek deus ez
dautzu nihun gordetzen: hantxe duzu den-dena,
zabal-zabala, eta konda ditazke kasik Hendaia,
Donibane, Bidarte, Miarritze, Baiona eta bertze

hainitz herrietako etxe xuri pollitak, han hemen-
ka landatuak! Oi, zer ikusgarria! Oi, zer begiaren
xoramendua: Egiazko haize hego batez Larrun
puntan kausitu ez denak ez daki Jainkoaren
eskuak zer egin dezake! Atsegin horren ondotik
zabiltzan segur Napoleon eta Eugenia...

LARRUNEN ORAINO

Napoleon eta Eugenia Larrunen izan dire. Erranak erran, badakizue betbetan zer heldu zaukun gogorat? Ez ote zabiltzan Larrungo errearen ondotik?

Alabainan Frantziako nausi handiak ziren, beraz hein batean bederen Frantziako ontasun guzien jabeak, eta nork daki etzuten nunbeit aditua Larrunen badela urre? Egia aitortzeko, guk beldurra baginuke langileak pikoxekin mendi ederraren zilatzen hasarazi balituzte... denbora galduko zutela, eta bertzerik ez! Bizkitartean buru beroak ez diren herritar batzuek gero neri finkatu izan daukute baietz. Ithurri-Ederretan badela urre! Badela segurki! Gure aita zena bera ez ote zen uste hortan, edo nahikaria horrekin? Huna ixtorio bat mila aldiz supazterrean aditu dioguna eta geroztik «Gauden gu Euskaldun» urtekarian gure herritar Pierre Larzabal gazteak ezarri izan duena: «Larrungo mendiak gordetzen omen du urre meta bat eta egun guziz iragaiten omen dira haren gainetik bai gizonak bai kaba-

leak. Huna nola ditaken hori. Duela frango urte, artzain xahar bat bazagon bere etxolan, artaldea alatu ondoan. Ardi esne xorta at eginik edan-eta hari zen beti gasna egiten. Oraino goiza zen. Lano txar batzuek mendiak kukutzen zituzten eta denbora pentsaketan bezala zabilan ean txarrerat edo onerat eman behar zuen. Hala zagolarik huna nun heldu zaion hogoita bortz urtetako mutil gazte bat, bizar beltz bat kokotsetik dilindan, bainan itxura onekoa.

—«Agur, jauna!

—Agur, agur! Hemengo aldi?

—Bai, ardiketan nabila: zu, gasna egiten?

—Beharko! Horrek hazten gaitu!».

Hola hora gure bi gizonak solastatzen dira. Hari zen artzain xaharra erran eta erra nola otsoek ardi hainitz ebasten zuten, arranoek eta azeriek bildots frango xahutzen. Bertzea aldiz bazagon burua behera begiak lurrari emanak. Egiazki zonbeit zozotzat hartuko zinduten. Bainan huna nun atzartzen den betbetan. Halako behakolpe bitzi batekin erraiten dio lagunari:

—«Mattin egitzu bi zilo.

—Zertako bi zilo eta zerekin?».

Akabatzerat utzi gabe, lagunak:

—«Hiru!

—Zer zare nitaz trufatu nahia? Beharrik zire gazte, bertzenaz kaska on batzu harturik gan behar zinduke gaur!».

Bertzeak manatu zion begi zorrotz batekin:

—«Lau zilo!».

Oraikoan gure artzaina samurtu zen:

—«Bakea emak, mutil zirtzila! lepoa bihurtzen deat gero! edo makilarekin bizkar hezurra hausten!».

Orduan gizon gazteak behatu zion mendiari, eta segidan jin zen jauzika ahari mutur beltz bat. Bi belaunen gainean emanik hasi zen adarrekin lurraren zilutzen eta lau zilo egin zituen. Artzain zaharrak etzakien zer asma:

—«Zer duk, marro? Hola burtxoratu haiza? Nahuk urruntzen haizela?». Eta emaiten diozka bi kaska. Bainan mizpirazko makila hausten zaio... ezen aharia urre bilakatua zen! Orduan mutil gazteak erran zion artzainari:

—«Entzun baninduzu, urre hori zure izanen zen, bainan orai Larrungo mendiarentzat izanen da!»...

Orduan marroa suntsitu zen betbetan eta lau zilotarik atera ziren lau ur xirripa. Geroztik deituak dira Ithurri-Ederrak. Hetarik bat jada agortua da. Gizon bizardunak erran zion oraino:

—«Euskal-Herriak iraunen du ur hunek dirau-no! Ni naiz... Jesus!».

Hortan gan zen mutil gazte bizarduna. P.L.». Ixtorio pollita, gure adixkide gazteak orai hamarretan hobeki erraiten duena segur!

Bainan supazterreko ixtorioak eta beti diru gose direnen ametsak utzirik, ez ote litake hobe, jada aipatua dugun bezala, gure mendi ederrak zuhaitzez betetzea? Zuhaitza, horra urrea! Denboran gaztain ondo guziak hilarazi baditu gaitz tzar batek, orai badire motak gaitzari ederki ihardokitzen dutenak: bertzeak bertze, Japoniako gaztainak. Orok jakin dezaten, huna zenbeit mota Euskal-Herrian beren frogak jada eginak dituztenak: Ipharra, Bakarra, Uzta, Zazpietakoa, Tipia, Marki, Hobeia. Begiak hetsirik hartzen ahal dire zazpi mota horiek eta landatzen gure larretan! Beude haatik bazterrerat, Japoniakoak izana-gatik, tratulant oker batzuek merkatuetan eskaintzen dituzten Tamba eta Shiba bi motak.

Japoniako bi eskualde dire Tamba eta Shiba, dena gaztain segurki, bainan ondo guziek ez dute balio bera. Ez balin badakigu, ikas dezagun tratulant guziak ez direla ez bardin jakintsun. Bat bederen badakigu Gerezietan errotik landarearen amodioak dabilkana: Germain Lafitte, herriko auzapeza. Gizonetan hoberena eta maitagarriena...

Gaztainaz landa bertzerik landa ditake Larrunen, lurra halakoa delakotz: Ameriketako haitz gorria, (*quercus borealis* latinez, *chêne rouge d'Amérique* frantsesez) eta bizpalau lerra (*pinus insignis*, *pinus Laricio*; *pin de Monterey*, *pin de Calabre*, etc), eta oraino izeia batzu (*abies grandis*, *abies pectinata*; *sapin de Vancouver*, *sapin pectinné*). Badire orobat finkatu daukutenak *mélèze*, latinez *larix* delakoak arras ongi harlezakela Larrungo maldetan, bereziki eta bereziki Japoniako motak. Hartu bezala saltzen dugu hori! Bainan, hemen erraiteko, zer izen behar ote luke euzkaraz? Laritza?

Oro ohartu direlakotz, landare-ele hau bururatu gabe, huna zer erran nahi dugun oraino hemen, harritzeko dela Japoniako mota batzuek

zoin maite dituzten gure eskualdetako lurrak: harritzeko orobat Japoniako eta hemengo landare izen eta bertze frango hitz zoin elgarren ahai-de hurbilak diren. Euskal-Herriak eta Japoniak ba ote dute bederen lokarri zerbeit? Hau ba, behinik behin: bat da eta bertzea san Frantses-Xabierekoak benedikatzen eta gerizatzen dituen lur zorionezkoak dire! Bai eta beren otoitz kartsuez Mugabure, Lissarrague eta Leon Gracy batzuek aberastu dituztenak! Hemen deus ez dugu erranen aita Jean Chabagno xaharraz: samur litake... eta ez dugu segurki holakorik nahi!

BETI LARRUNEN

Hurbiltzeko ere ez ditugu Larrungo mendiaz erran behar diren guziak erranak. Sekulan erranen ote dire? Bizkitartean nola egon Larrun puntan izan diren elizak aipatu gabe, lehenik Izpiritu Sainduaren, gero Trinitate Sainduaren... nun eta bi eliza horik etziren denbora berean bi tokitan? Ez luke haatik plantarik hala zirela.

Larrunek bederatzi-ehun eta zenbeit metra gora baditu eta nola nahi puntarat heltzeko Azkainetik hiruzpalau oren behar dire. Eta halere ez da den gutieneko dudarik hamazazpigarren mendean eliza bat bazela Larrunen: 1654-ean egina. Egia erran, gisa batez batere ez da harritzeko mendi punta hori hauzoetako girixtinoek hautaturik ere eliza baten egiteko. Eliza bat ez da gordetzeko, beti toki agerian egiten da. Eta nun egin zitaken Larrun puntan baino ageriagoan? Larrun ez dute bertze mendiek lehertzen: orotarik aski urrun, Pirenetako mendi-lerroetarik haxtur handi batzuekin Jainkoak pikatu balu bezala. Itsasotik hamar urratsetan, gatu handi

baten aztaparra iduri, punta guzietarik ikusten da: «*C'est un poste de vigie: rien ne le bouscule, ni ne l'encombre*» dio norbeitek nunbeit. Eta Larrun puntan etzen kapera ttipi bat, bainan eliza gotor bat, erdaraz *basilique* erraiten ziotena. Hamasei metra luze ba omen zituen gutieneztik. Hameka eliza ttipiagorik bada Euskal-Herrian, Liginagarat gabe. Ondikotz ez da eliza hartarik deus handirik gelditzen gehiago! Harri handi batzu harat eta hunat berduratuak. Gu baino erneago, zerbeitez oroitaraz dezaketen guziak Beratarrek bilduak dituzte herrirat. Paper batzu gelditu zauzku haatik: emaiten dauzkuten xehetasunek zerbeit balio dute. Beha. Hamar urtez —eta gutiagoz 1676-etik 1685-erat— Larrungo elizak izan zituen bortz kapillau: Jean Duhalde, Azkaineko erretora lau urtez; d'Etchepare, Urrunako erretora zenbeit hilabetez; apez angles bat orobat zenbeit hilabetez; Gregorio de Miura lau urtez; eta gero Don Bernardo. Jaun horiek ez baitziren Larrungo airetik bizi, Urruna, Bera, Sara eta Azkainek hazten zituzten. Larrunen zer egiten zuten? Igande guziez behar zuten meza kantatu, pestetan ere ba: orobat prosesio-

ne bat Urruna, Bera, Sara edo Azkainetik joaiten zitzaiotelarik. Urtean lau prosesione bederen ba omen ziren, Maiatzetik goiti. Bertzalde lau herri horietako haurrerik kapillauek eskola egin behar zioten, bai eta katixima. Sei egunen jatekoa eremanik, astea mendian zeramaten hurrek... ardiekin dudarik gabe. Ez litake naski oraiko haur batzuerik holakorik galdetu behar!

Elizari eratxikia, edo elizatik hurbil, kapillauek bazuten bere egoitza: han jaten zuten, han lo egiten. Ez dugu nihun irakurtu gobernantik bazutela. Nola laketuko zuten han bi eleren egiteko auzorik gabe? 1793-ean aurdiki omen zituzten delako eliza eta delako etxea.

Errana da etzutela beti ongi elgar aditzen lau herriek, kapillauaren hautatzeko tenorea heldu zelarik eta jaunik argitu eta beso luzeena zutenak igortzen zituztela kapillaua hautatu behar zen bilkurrat. Badakigu 1681-ean Jaun de Amestoi eta Pierre de Jaureguiberri, auzapeza eta deputatua, igorri zituztela bilkurrat Azkaindarrek... bi izen Azkainetik geroztik galduak...

Larrungo kapillauen denboratik hunat baditake ez den prosesione hainitz egin Larrun punta-

rat. Badakigu haatik, jada mutiko gazte geroni han ginelakotz, bat bederen egin dela 1897-ean Buruilaren 22-an, euriaren galdetzeko. Mathieu Elissalt Donibandarra zen Azkainen erretor orduan eta Jean Montalibet Izturiztarra bikario. Hau zen gidari. Larregainbaitako arotz zaharrak ibili zuen gurutzea... eta Larrun puntarat hel-tzean ez dugu ahantzia zer irrintzina egin zuen. Bidean baziren otoitzeko mementoak, baziren eleketakoak, eta baziren pokado baten jatekoak. Goizeko bortz orenetan elizatik ateratuak; arratsaldeko bi orenak alderat itzuli ginen elizarat eta gure etxetarat... salbu lau mutiko tzar. Plazan gelditu ziren unadura guzien gatik eta pilotan hasi «jozak! eta emak!». Oi gaztetasunaren ederra!

Eta geroztik, kasik hogoigarren mendearen erdian, Larrunen izan da oraino ermitau bat, berak bere diruz eginarazi kapera batean. Ermitau bat, eiki, Sarrolatik hamar urratsetan, Haranederreko lurretan! Edo bederen bere burua ermitautzat har-arazi nahiko zuen norbeit. Ez haatik deusen esperantzan: buruko ahulezia batez. Gizon on bat, oro har!

Menderen mende ermitauak izan dire Euskal-Herrian. Ermitauak, erran nahi baita gizon batzu ixiltasunari eta penitentziari emanak: saindutasunaren ondotik zabiltzanak, Benoit Labre batzu iduri: haragiki guti jaten zuten eta arrosario hainitz erraiten. Egundainoko aipatuenetarikbat Euskal-Herrian, Jean-Baptiste Beherecotche naski, Ainhoako ermitaua. Sortzez era Ainhoarra omen zen, Gorritiako semea, 1745-ean sortua. *Atsulaiko kapera xuriaren aldean baitzen etxola txar bat, harat bildu zen hamazazpi urtetan* Jean-Baptiste Beherecotche. Handik goiti otoitzean zeraman denbora gehiena, artetan mendiko artzain ttipieri katixima zenbeit eginez, urrunetik urrunerat karrikarat jautsiz Ainhoako aho xuriek zokoetarat igorri ogi mokor idortuen biltzeko. Espainolen gerlan, kapera lurrerat joan zelarik, ermitauak etzuen eperik ez pausurik hartu, han eta hemen sos batzu bildurik, kapera berritz altxatu arte. Eta lauetan-hogoi urtetan hil zen, bere bizia ederki beterik.

Larrungo ermitauak ere segurki balinbazi-tuen bere merezimenduak, —bertzeak bertze, zilkorainoko bizar baten ibiltzea bera ez ote da

merezimendu bat Sokorriko otasketan?— ez dugu uste, orotarar heldu zituen potretengatik, Ainhoarraren heinekoa zela. Egia erran Azkaineko ermitauaren kapera etzen errex bere gogoren biltzea eta otoitz egitea. Alde batetik bizkar pollitegian zen kapera. Donibaneko itsaso maitagarriari beha haitz eder batzuen gerize pollitean eta bertetik harri pikatzaileak hurbilegi, kiski eta kaska harrokaren kontra ari:

*«Biarritzeko dorrea egin da Larrundik:
Etzuten harri hobe jautsaraz nihundik...».*

dio Hiribarrenek.

Larrunen beherasko zen ermitauaren kapera. Beherago jautsi gabe erran dezagun bertze orduz Larrunen bazela bizpide bat orai nihori gogoratzen etzaiona; betizoen haztea. Ez dugu uste —ez dugu bederen jakin— behinere nihun betizo troparik Larrunen bezala hazi dela. Betizoak zer dire? Pottokak, zaldi ttipi erdi-basa batzu diren bezala, betizoak behi ttipi erdibasa batzu ziren, gizona hurbildu orduko haizea bezala ihesari emaiten zirenak. Etzuten arta berezirik

behar. Herriko gazte batzuek elgar aditzen zuten eta, bizpahirur Espainian erosirik, Larrunen largatzen, han emenda ziten. Etzen lan errexa betizo baten biltzea, etxekotzeko edo saltzeko: partzuer guziek elgarretaratu behar zuten eta egun osoak mendian ibili eta hainitzetan betizoa tiroz hil behar zuten. Ba ote da gehiago betizorik Larrunen? Guti naski. Eta lehen halako tropak ikusten gintuen Ihilzehaien barna!

Larrungo mendi eder eta maitatua, zertako utzi ditugu atze beltzak zutaz jabetzerat? Zertako utzi dugu mendi-trein hura egiterat? Eta horra nola galdu ziren betizoak, galduxe pottokak, egunetik egunera urruntzen ari hainbertze eper, hainbertze erbi, eta oro!

Hola nahiago dute oraiko sos-gose batzuek: guk, ez! *«Victrix causa placuit diis, victa Catoni».*

Eta hona Larrungo mendiaren amodioa nola kantatzen zuen. Hiribarren Azkaindarrak, arras gogotik gure egiten ditugun pertsu batzuetan.

*«Arraina lehenago mendiz ikusiren,
Ezen baitut nik Larrun nihoiz ahantziren.
Bertzeak doazila urrun aitetarik,
Ez daukat badutela odol herrikorik...».*

URAK

Edateko urak nun-nahi badire Azkainen. Eta zer urak! Haizpeko-iturrian, Putxuan, Sokorrin, eta orai Sokorritik ekarria karrikako eta Portuko etxe hainitzetan. Lehen Harrubi-Beltzean ere bazen ur on bat, dena burdin kolore eta burdin gustu: Elissagaray Sarako jaun miriku xahar zenak noiz nahi bere erieri hortarik manatzen omen zioten. Orai suntsitu da edo lurrek iretsi dute.

Ur handiagoez, erreka-urez mintzatzeko xedea dugu hemen egun. Denbora delarik behar zaizkote bere izenak atxiki edo laster kaskoinduko zauzku, jendeak bezala.

Erreka gotorrena, harritik harrirat, Ihizelhaitik Uhertsirat doa. Hameka izen emaiten diote bidean: Haltxuko-erreka, Ximeldegiko-erreka, Laurentzeneko-erreka: hots, bidean hunkitzen dituen etxe guzietako erreka. Uhaitza da bakkarririk. Eta Uhaitza oldar handiko erreka da eurite batzuen ondotik. Ikustekoak dire orduan haren jauziak, aditzekoa haren marruma. Sasoinean

aski arraintsu da, guziz amorrintsu eta badakigu behin Laurentzeneko ondoan, zubitik higitu gabe, Arce pilotariak sei atxeman zituela, lau hein pollitekoak, biga ederrenetakorik. Egia erran, Arce bezen arraintzale onik ez dugu Baigorritik Hendaiarat ezagutu.

Uhaitzean sartzen eta galtzen den erreka txar batek aipatzea merezi du. Zertako? Huna.

*«Sokorriko paretan bada iturria,
Negela sendatzeko beti idekia».*

Egia erran, ez da aski Hiribarrenek erraitea ur horrek negela sendatzen duela: mirikuek erran behar lukete.

*Uhaitzean sartzen eta galtzen den erreka erran balin badugu, ez ote ginuen erran beharko sartzen eta galtzen zen erreka? Hori ere orai Donibandarrereri saldua daukute sos tzar zenbaitentzat herriko buruzagi batzuek! Veau, vache, couvée, oro joan ditu debruak! Uhaitzaz kanpo, Azkaineri ez diogute izen berezirik ezagutzen. Salbu portuko ur handiari. Segurki, badire *Ur Handia* baizik erran nahi ez diotenak. Ur guzieri*

ez balitz bezala *Ur Handia* erraiten ahal, hein batetik goiti! Uztaritzen *Ur Handia* deitzen dute *La Nive*. Euskaldunek Lapurdiko lau erreka handietarik biga atxiki badituzte, bertzeak galdu dituzte.

*«Kaskoinen ingurutik edo iguzkitik
Baionarat lerratzen Ihuri Bardoiztik».*

*«Bidasoa da sortzen mendebal aldean
Espainia duela bereizten jaustean...».*

Ez ditugu jendeak baino gehiago kaskointzen ikusi nahi bertze bi errekek. Nola deituko ditugu beraz?

Aipa dezagun lehenik *La Nive*. Huna zer irakurtzen dugun hortaz *Euzkadi* deitu Bilboko egunkari batean; Espainiako azken nahasmendu ikaragarriek suntsitu dute geroztik: Louis Coulon, hamazazpigarren mendeko jakintsun batek idatziak dire hitz hauk: *«Scribit Nivum lingua vascitana Errobi appelari»*. Bollan direlako xerkariak ez diote bertze izenik emaiten: Errobi. Hamaseigarren mendeko lehen urtetan egin zen

Larresoroko eliza eta orduko paper batean hitz hauk irakurtzen dire: «*De Robi seu deu Nibe*», Larresoroko elizaren egiteko solasa ateratu zute-larik. Antxuberrok zer ote dio? Huna: «Hantxet, iguzki aldean, Errobia erasian doa. Kanboko erreketan gaindi, mendia garaiturik Ategaitze-tan». Bertzalde orai ere ez ote ditugu kausitzen Ezterenzubin Beherobi, Itsasun Errobia eta Mila-frangan Errebiola, hirur xoko maite ibaiaren alde-aldean? Iduri du beraz Nive delakoari ez diogula bertze izenik bilatu behar: Errobi. Horra beraz Lapurdiko hirugarren erreka handiaren izena, eta orai goazen laugarrenaren ondotik.

Jean Saint-Pierre jaun apezpiku argituak Baio-nako moldiztegi batean liburuxka bat agertarazi zuen 1932-an. «*Basque et Berbere*». Irakur-errea bezen maitagarria da liburuxka hori. Bada, badakizue zer irakurtzen dugun hartan? «*C'est Igargar qui descend du massif du Hoggar et pousse droit vers le Nord, à travers l'immensité désertique, jusqu'à la dépression de Touggourt. L'Igargar, c'est le vieux nom de la Nivelle basque*». Nundik ateratu ote du hori jaun Apezpiku Euskaldunak? Lafitte jaun apezak aitortu dauku

ez dakiela hori guk baino gehiago. Hauxe jakinaz- razi dauku haatik, hemen batere tokiz kanpo idu- ritzen etzaukuna: Senperen badela erreka bat Insharga deitzen dutena eta Insharga gure Uher- tsin galtzen dela: orobat Ainhoan Urma deitu erreka.

Ez ote litake Urma hori «ur ama» eta gure erreka handiaen hastapena edo hobeki iturbu- rua? Bainan badakigu ez dela sobera bilatu behar hitzak eta guziz izenak nundik heldu ziren: aise errebela ditake. Beha: Jatxun bada zoko bat Beleburu erraiten diotena. Neguan munduko bele guziak han aditu ditazke karrankaz. Beleburi hortarik heldu ote zaio bere izena? Fa! Paper zaharrek huna zer erraiten dioten zabal-zabala: *Bellevue*.

Paul Vovard jaunak ere badu gure erreka-entzatzat bere izena «*Ainhoa et la vallée de la Nivelle*» delako liburu pollitean: Ugarana. Lehenago ere izen hori irakurtua edo aditua ginuen nunbeit. Mirirrina ere aipatu dauku Ainhoa ezagutzen duen norbeitek. Bainan ez ote dire Ugarana eta Mirirrin, Ainhoan elgarretaratzen diren aipu dugun Ur-Handiaren bi adar? Lehen bi adarrak

menturaz... Eta huna orai norbeit, gure arabera nor-nahi baino hortan hobeki sinesten ahal duguna, Martin Hiribarren jada zenbatetan aipatu jaun kalonje euskalzale eta pertsularia. Azkaindarra zen eta Azkaine maite alde batetik eta paper zaharretan oro baino trebeago, bertzetik.

*«Uhertsik hastapena Urdazubin hartzen,
Ehun xirripek dute bidean berratzen.
Ainhoa, Sara eta Helbarren joria
Baliatzen dutenak haren ixuria,
Bere ohea segi deskantsu da jausten
Ez diola biderik grinari ematen.
Erraietan dakarke arraina ausarki,
Inguru errepirak ferdutzen ederki,
Jotzearekin Azkain Uhertsik zubian,
Bertze bat iduri du bere arraizian;
Hasten da bai birungan, lorian bezala,
Luzeki gozatzeko Azkaingo hegala...».*

De Cange jauna ere ez da segur pikaren azken umea, Pariseko liburutegi handienez bai-zik kausi ez ditaken «*Géographie des Gaules*»

egin duenaz geroz. Bada, De Cange jaunak laugarren izen bat emaiten dauku: Urdaxuri. Zoin hautatuko dugu? Uhertsu. Azkaindar zaharrenek ez dute egundaino Errotaberriko gibelean den zubi erromano famatuarentzat izen bat baizik aditu: Uhertsiko-zubia. Beraz bizi bedi Uhertsu, bizi aho-mihi guzietan bezala luma guzien puntan.

Uhertsitik ez dugu urrundu nahi hango arraineria aipatu gabe. Ondikotz Portuko arraintzari batzuek bere sareekin egiten dioten gerlarekin Uhertsiko arrainetan ederrena, izokina, gutitzen ari da urtetik urterat. Gutitzen ari orobat, arrazoin beraz amorroin tita gorri polllita. Aingira eta plauza eta xarbo bada oraino tole. Korrokoina ere bizi da beti. Eta angula —Donostiako txitxardina, *la pibale* Frantsesena, *la civelle* bertze batzuen, *leptocephalus breviostis* Latinena—bada egundaino bezenbat. Azkaindarrek higitu nahi badute ez dute zeren lotsa: ez ditu goseak hilen. Nihork ez luke lokartu behar halere: uholde bat aski da arraineria guziaren hondatzeko. Han-hemenka arraintzala-batasun batzu badireginak, uren zaintzeko eta haziak han eraiteko.

Zertako Donibane-Garazin eta Hazparnen bezelako batasun azkar bat ez egin Azkaindarrek ere, beharrea Senpertar, Saratar eta Ainhoarrekin bat? Balio luke.

AITA CLEMENT KAPUTXINOA

*«Ager handi, Chaubadon, kaputxin handia
Beaumont artxaphezpikuz ongi ikusia».*

Hiribarren

Behin bederen aipatu dugu jada Chaubadon. Nor zen? Aita kaputxin famatu bat. Berehala erraiteko, aita Eusebe Larresoroar ezti eta otoitz-egile handi hura Baionako karriketan ikusten ginuen aldi guzietan, gure Chaubadon heldu zitzaunkun gogorat: aita Eusebe bezalako hola mehe luze bat zela emana ginuen gogoari! Ez dakigu zertako, egia erran. Hainitz eta hainitz irakurgaietan aipatua ikusi badugu gure herritar gaitza, nihun ez dugu holakorik irakurtu. Emazue beraz amets egina ginuela. Batetarat doa guzien buruan. Izan zadien San Tomas bat bezen lodia edo aita Eusebe bezen mehea, Azkaindarra zen, Chaubadinabaita orai Joseph Laduche pilotari famatuak beretua duen etxean sortua 1696-ean. Chaubadon ttipiak arras maite omen zuen Larrun puntako elizarat joaitea. Bixtan da ez

zabilala hango begietako xoramenduaren ondolik, geroago ohartzen baita norbeit holakoeri, bainan ba segurago hango ixiltasunaren ondolik: jada maite zuken otoitza eta han hobeki egiten! Menturaz ermitauari kontseilu batzuen galdetzerat joaiten zen, eta nork daki ez duen Larrungo maldetan aditu Jainkoaren deia?

Agustin Chaho Atarraztarra, Chaubadon hemeretzi urtetan joan zela komenturat erraiten dauku bere «*Itinéraire pittoresque*» delakoan; Daranatz jaun kalonjeak, aldiz hamalau urtetako sar-arazia du. Nork dio egia? Jaun kalonjeak, ezen huna zer ikusi dugun aita Lazare Arbonakoren eskutitz batean, «Erromako paper zaharretan irakurtu dut Chaubadonek 1710-ean, beraz hamalau urtetan, hasi dituela bere eskolak».

Aspaldikoa zen jada kaputxinoen komentua Baionan, Jauffret Baionako apezpikuak diosesako fraile eta serorez agertarazi lan eder batean ikusten dugunaz: «*Le premier couvent que les Capucins ont fondé dans le diocèse est celui de Bayonne sous l'épiscopat de Bertrand d'Echaux, transféré à Tours en 1618. Ce fut à la demande réitérée de Madame Elisabeth de France, alors*

que cette princesse, allant en Espagne pour épouser Philippe IV, avait fait un arrêt à Bayonne. Le duc de Guise et le père Archange de Lyon, y prêtèrent leur concours.

Les Dominicains cédèrent à leurs nouveaux frères le seul local convenable que existait pour cela à Bayonne, l'église de Saint-Thomas. La prise de possession se fit par una procession qui partit de la cathédrale et à laquelle assistaient les évêques de Carcassonne et d'Alet. C'était le 4 novembre 1615...».

Ixiltasunean bizi dire kaputxinoak. Ez da beraz errex Chaubadoni bere ixtudioetan jarraitzea. Handizki eta ohorezki egin zituen segur. Predikari handi bat heldu zela ikusirik, buruzagien doidoia diakre zelarik hasarazi zuten. Geroztik kasik ez da predikatu ez duen herri handirik, Frantzia behere huntan bederen: Bordele, Montauban, Tolosa, Perpignan, Marseille eta bertze gehienak. Chaubadonen fama orotarar hedatu zen beraz eta Paristarrek ere aditu nahi izan zuten. Bi urtez segidan aditu beharra zuten, 1751 et 1752-etan: berrogoita-hamasei urte zituen Chaubadonek. Gorterat deitu zuten

orduan: Luis XV zen errege. Bainan, duela berrogoibat urte Hazpandarrerri aita Larregain, Saindu Mokorraren, egia saminak gaitzitu zitzaizkoten bezala, gorteko jaun eta andre minberek etzuten onartu Chaubadonen erakaspena:

*«Hamabortzgarren Luis zen behar handitan:
Inguruan zituen tzar guziak mentan.
Hek zuten aisiakotz Chaubadon urrundu,
Eta errexago bat gorterat hurbildu...».*

Pompadour eta holako perreka batzuek zabilkaten Frantzia ondikotz! Chaubadonek ixil-ixila hartu zuen bertzen nunbeiterako bidea.

*«Parisen zen orduan Leizinski maitea,
Galdurik etorria polones gorrea
Haren aintzinean zen Chaubadon mintzatu
Eta aditzaleak zituen gustatu...».*

Bi zaldu xuri igorri ote ziozkaten bila? Baditake, bainan ez zituen hartu: oinez ibiltzea maite zuen:

*«Oinez zabilan beti bide guzietan,
Erraten bazioten nihork aurkizetan
Zertako etzen nahi ibili bertzela
Ihardesten zioten Euskalduna zela...».*

Erakaspen ederra gehiago beribil edo pirripita bat gabe hirurehun metra egin nahi ez dituzten gazte batzuentzat!

Berrogoita-hamar urtez bederen Frantsesek aditu nahi izan dituzte eta aditu Azkaindar suharraren prediku ederrak. Bada, komentuko bere lagunek gogotik atxikiko zuten berentzat eta aise fidatuko ziozkaten etxeko kargu handienak. Orotako on zen Chaubadon. Behin ederki lotsatu omen zen haatik. Hiruetan-gogoita-sei urte zituen. Frantziako kaputxin guzien mandatari Erromarat zoon, han Buruzagien buruzagia, edo holako norbeit hautatzeko. Horra nun bidean nunbeitik ikasten duen hainitzek begiztatua dutela kargu hortako. Baia ba? Bidean denbora galtzen du, eta bertze bat hautatu dutelarik Erromarat heltzen! Aita Sainduak erasiak egin ziozkan aldi hartan: *«Dolemus quod tarde veneris!»*...

Predikari ederra bezen kofesatzaile goxo eta arima gidari ona zitaken Chaubadon eta seroranausi baten eskutizetik badakigu zer bihotzmina ukan zuten Compiegneko komentuan hango kofesorgo eta gidagoa ezinbertzez kendu ziotelarik bere buruzagiek: *«Monsieur Naudoux, nous apprenons que vous êtes nommé supérieur de notre maison. Que ne pouvons-nous, Monsieur, vous témoigner la joie que nous cause une nouvelle aussi agréable? Il ne fallait pas moins qu'un pareil événement, pour nous consoler de la perte de Monsieur l'abbé Clément, ce père si respectueux et si digne de notre vénération...»*.

Lauetan-hogoita-bortz urtetan hil zen aita Clement Duhalde, egundaino Azkainen sortu den gizonik famatuena eta Baionako kaputxinetan ehortzi zuten. Artean erraiteko egungo egunean ere badire San Andresetako elizari «kaputxinen eliza» erraiten diotenak; hala zen orduan. San Leonetarat joan zirelarik kaputxinoak, San Andresetako elizaren erreberitzen ari zirenek Chaubadon eta bertze hogoita-hamabi kaputxi-noen hezurak han atxeman zituzten. Erran gabe doa etzituztela han utzi. Horra zendako egungo

egunean Chaubadonen hobiaren aintzinean otoitz egin nahi dutenek San Leonetarat joan behar duten...

Eta orai norbeitek galde hau egiten badauku, Chaubadonek ba ote zakien Euskararik eta behinere predikatu ote du Euskal-Herrian? Ez dugu dudarik orduko Azkaindar guziek bazakitela Euskara errotik, eta Chaubadonek nirhok baino hobeki. Hori ez dugu haatik nihun irakurtu. Irakurtu izan duguna hau da: hogoita-hamar eta berrogoi urteren arte hori zuelarik, Donibane-Lohitzunen misione bat eman zuela. Euskaraz? Frantsesez? Dakienak, daki, bainan hain segur Euskaraz eta Frantsesez. Zer jendetzeak bildu ahal ziren haren aditzeko! Alabainan halako famako predikaria zen... eta Azkaindarra gainerat...

Ez ditake Chaubadon utz, ametsa iduri duten Hiribarrenen pertsu batzu hemen eman gabe: bakotxak ikus.

*«Lehengo kaputxinek, zazpi urte handiz,
Ibili behar zuten haintzurra izerdiz:
Urte hek deitzen ziren bestiazko lanak,
Gerlako zirelarik arimen pikainak*

*Nola ez baitzen buruz Chaubadon horrako
"Vaderat" eman zuten lagunek hiltzeko.
Bordelen gertatu zen pikandia hori
Euskaldun herritako lili lehenari.
Parlamentako jaun bat zuen axkidea,
Maiz hura mintzatzeko bazuen bidea.
Hark, ez ikusiz Clément, bere egunetan,
Errenkura hedatu lagun suspitxetan.
Beharrik zen mintzatu: ur eta ogian,
Jadanik hil hurren zen komentu azpian.
Beldurrez zuten handik lasterka atera
Eta utzi ageri axkiden gogorat...».*

Hori erran duenaren gain utzirik, salatu behar ote dugu betbetan gogorat heldu zaukuna? Ez ote duten gorago aipatu *Compiègne*ko kofesorgo eta gidarigoaren brixtakean kentxeak eta, «Bordelen zen pikandia horrek» elgarrekin ikustekorik? Dakienak erran dezala...

HIRUR CHOURIO

Michel Chourio, Pierre Chourio, Martin Chourio, hirur izen famatu, bi apez eta notari bat Martzeenea deitu etxean sortu ziren eta hazi. Har detzagun bat bertzearen ondotik: saltsa nahasiak ez dire hobeak.

Michel Chourio nor zen eta zer egin du bere denboran? Bego hortaz mintzatzera Georges Lacombe euskal-jakintsunetan menturaz handiena: huna zer erran zaukun 1928-ean Euskaltzaileen-Biltzarreko bilkura batean Martzeeneko aintzinean: «Etxe huntan sortua, ez dakigu noiz, 1702-an Donibane-Lohitzuneko erretorgoa zadukan eta hil zen 1718-an. Bi urte geroago agertu zen liburu bat, Chouriok hasia, haren arrebak akabatua. Liburu horren titulua: *Jesu-Krixtoaren Imitazionea*. Latinetik itzultze hura hain irakurtua izatu zen non bertan norbeitek argitara eman baitzuen idurigaitz bat (frantsesez *contre-façon*). Eta geroztik zazpi agerraldi izatu zituen. Egia erraiteko, Chourio baino lehen, bietan *Imitazionea* euskaratua izan zen: Pouvreau Euskal-

dun etzen apez jakintsu batek, ikasirik Euskara, itzuli zuen lehen aldikotz liburu hori, bainan Pouvreauren eskutitza agertugabea datza Frantziako gutuntegi-nausian (Frantsesez *Bibliothèque Nationale*). Gero Lapurdiko idazle batek, d'Arambillaga zeritzanak, itzuli zituen *Imitazio-nearen* bi azken zatiak. Chourio hirrugarren heldu da, bainan hainitzez ezagutuena. Orain badugu Lapurdiko Euskalkian laugarren *Imitazio-ne* bat, Duvoisinek emana eta Haristoyek argitaratua. Hartako, ene ustez, ez da egina izan Chourioaren agerraldi berri bat, zortzigarrena. Dena den, haren liburua, euskara garbian, beti eta beti goretsia izanen da. Gora beraz Chourio, euskaldun idazle handienetarik bat delakotz!». Urrunago joan gabe erran dezagun, Georges Lacombe Azkainen hola mintzatu eta urte baten buruko, Brepols Belgikako liburu-egileen etxetik «Jesu-Krixtoaren *Imitazione*» berri bat etorri zitzaukula, euskara ederrez egina, aintzineko guziori aise nausi dena, Leon Uztaritzeko jaun apez-nausiak argitaratua. Bainan horren gatik guretzen ditugu gogotik Pierre Lafitte Euskaltzaindikoaren hitz hauk: «Nahiz geroztik hunat

euskarazko *Imitazione* hoberik moldatu den, hau (Chourioena) ez daukagu batere gutiestekoa».

Chourioaren *Imitazionea* 1720-ean agertu zen. Bi urte bazuen jada Michel Chourio hila zela, Donibane-Lohitzuneko erretor. Georges Lacombe jakintsunaren arabera iduri luke etzuela oso-oso Michel Chourio berak egin: parte bat arre-baren gain emaiten du. Etzauku iduritzen. Hiri-barrenek bere pertsuetan gauza bertsua erranik ere.

*«Laugarren liburua ez du hark itzuli,
Arrebari zioen hura lili utzi...».*

Imitazione hortako lau liburueri nahi bezen hurbildik behatuz ere, ez da hor bi eskuen lanik ageri. Eman dezagun arrebak liburu horren argitaratzeko zerbeit ein zuela, ba, baina ez ditake bertzerik finka. Ez ote zuten zerbeit erranen 1820-ean liburu berria Baionako jaun Apezpikuaren manuz irakurtu eta onartu zuten hirur jaun apezek? Jaun Apezpikuak hola hautatzeko ez ahal ziren nor-nahi Haristeguy Donibaneko erre-

tora, Darretxe Ziburuko erretora eta Dolhabide Azkaineko erretora!

Idazle handi bezen apez ona zen Michel Chourio, *Imitazioneko* «egia eta bertute gehienak beretuak bezala zituen» dio Darretxek bere aintzin-solasean. Vinsonek ere nunbeit aditu izan du edo irakurtu hau: «*Il mourut en odeur de sainteté*».

«*Anaia bat bazuen Jesuista zena,
Bordelen teologal aipatu izana...*».

dio Hiribarrenek.

Egundainotik lore ederrenak ereman dituzte san Inazioaren ondokoek Euskal-Herriko baratze-tik. Pierre Chourio baino ederrago guti ereman dute.

«*Opera theologica*» derizaten hemezortzi liburu Parisen argitaratu ziren 1747-an. Tournely jakintsunak egin zituen. Hain liburu balio handikoak dire nun geroztik Venisen berritz argitaratu baitzituzten. Bada, nahi duzue jakin Tournely jaunak berak zer erran zuen, Pierre Chourio gure

herritarraren lan batzu ikusi-eta? Lehenago eza-gutu balitu, bere obra etzuela hasiko!

Lehena anaietan izan zadien Pierre Chourio —guk ez dakigu— Michel Chourioren heinekoa zen. Segurki bi lore eder Azkaineko baratze xoragarrian sortuak eta handituak!

Michel Chourio eta Pierre Chouriok anaia ote zuten, ala aita, Martin Chourio? Louis Dassance Euskaltzaindikoak ez dakiena, nola nahuzue guk jakin dezagun? Hobeki uste ginuke aita zutela. Notaria zen eta Lapurdin deputatu edo mandatarari. Hemen mintzatzerat utz dezagun Louis Dassance jada aipatu jakintsuna: «Haren gain zen Lapurdiko konduien atxikitzea, hura zen ararteko herrien eta Erregeren gizonen artean, bai eta behar zelarik harek zituin bil-arazten Uztaritzeko biltzarrak. Bere karguia utzi behar zukeien denboran, azkarki samurtu zen ibar-jaunarekin (ibar-jauna: *le bailli*), eta hortarik sortu ziren makur batzu ez tipiak: Lapurdi guzia bi alderdi jarri zen, batzu alde, bertzeak kontra, Urtubiaren aldekoak Sabelxuriak deitzen zituztela, eta bertzeak, Chourioren aldekoak Sabelgorriak».

«Bi urtez asko nahaskeri, desmasia eta odol-ixurtze jasan zituzten gure arbasoek: beharrik, azkenean, berritz guduari lotzerat zoalarik egundaino bezin bortizki, Martin Chourio hil zen bere etxe huntan eriturik, eta orduan bakarrik nahaskeria horiek gelditu ziren, eta bazter hauk bakean sartu».

Hortxe nor ez da ohartu Uztariztar jaunak gure herritarraz erran duenari? «Beharrik berritz guduari lotzerat zoalarik Martin Chourio hil zen». Zertako *beharrik* hori? Ala Louis Dassance Sabeltxuriekin, Sabelgorrien kontrato ote dugu? Berak badaki. Ez diogu halere hortaz gerlarik bilatuko, batere ez baitakigu Martin Chourioek zer zuen, gerriko gorri bat emanik, Urtubiako gerriko xuridunari makikaldi, harrikaldi eta tiroka haste-ko.

Eta horra nun hori erran orduko, Jainkoaren mirakuilu batez bezala, begien aintzinerat heldu zaukun liburu eder bat, Michel Etcheverry gure erakasle ohi maitatuak argitaratua, eta hartan irakurtzen dugunaz: «Luis Hamalaugarrenak, 1653-an ibar-jaun bezala hautatu zuen Leonard de Caupenne Senperekoa, eta gero urte baten

buruko Salvat d'Urtubie». Nola bi jaun horiek lehen ere makur baitziren, hortan osoki hasarretu ziren eta etsai egin. Bada, Martin Chourio Senperraren aldekoa zen errotik eta, jada denborak eginik, zuzen kontra zeraukan bere kargua. Lekuak hutsarazi nahi izan ziozkan Urtubiako jaunak. *Inde irae!* Hirur mila gizon bildu zituen eta gerla hasi. Eta zer gerla! Michel Etcheverry jaunak dionaz, «*Le pays eut beaucoup à souffrir des excès de ses troupes, en particulier de ses rapines...*».

Martin Chourio arras utzi eta ahortzi gabe, irakurtzailea ohar hart dadiela huni: Salvat d'Urtubie 1654-ean ibar-jaun zelarik, Martin Chourio bere karguko denbora bururatua zuen. Adin bat bazuken beraz. Nola Michel Chourio gero eta gerokoa baita, 1817-an hil zenaz geroz, iduki luke Martin, Michelen aita zela. Nork zer dio?

MARTIN HIRIBARREN

Huna omen handiko bertze Azkaindar bat: Martin Hiribarren jaun kalonjea, elizatik goraxago, Etxeberrian 1810-ean sortua. Esku hainitzetan geroztik ibilirik, Etxeberria orai Barrenetche-tarren eskuetan da. Ez zitaken hobeki eror.

Nafartar etorki handi batetakoa zuen ama Martin Hiribarrenek eta etorki horri jarraikiez badakizue norenganadino hel ditaken? San Frantses-Xabier handiraino! San Frantsesek euskara maite baitzuen, hiltzerakoan euskaraz otoitzean arizan zenaz geroz, ez da harritzeko arbaso horren mintzaira maitea ororen gaineratik maitatu balin badu Martin Hiribarrenek.

Apezteari gazte loturik lehen meza kantatu zuen hogoita-hirur urtetako. Urrunan sartu zen bikario lehenik. Bardozen gero, ondoan han berean erretortzeko. Baionan hil zen hainitz zahartu gabe: berrogoita-hamabortz urte zituen doidoia eta kalonje zen, kalonje *ad honorem*, Hiribarrenetaren hil-harriaren gainean irakurtu dugun bezala.

Langile handia zen Martin Hiribarren: aski da aitortzeko Bardozeke erretorgo handiaren lanez kanpo egin dituen idazkieri behatzea.

Idazki horiek ez ditu, hurbiltzeko ere, oro argitaratu. Orduan, orai bezala, apez baten moltsa ez zitaken moldetegietako dirutze ikaragarrietarat hel! Bertzeak bertze *Hiztegia* beti Hiribarrenen paperetan dago. Hitz berri frango ba omen du haatik eta hortako ez dute orok gogokoa. Zer erran nahi du, hitz berriekin zahar guziak han balin baditu? Han berziki Bardozeke «emoik, xapo bat eta leperiak». *Emoik, dohainik* da Maulen, *urririk* Azkainen: «Erran dezake behi hori emoik ukan duela!». Xorta da aldiz xapo bat: «Erran dut xapo bat arno!». Bainan latina «*lepus, leporis*» ez dakienak, nola asma leperia, erbia dela?

Eta gero hain segura ote da berritzat dauzkagun hitz batzu arras berriak direla? Behinik behin «aingiraketa», *quantité d'anguilles*, ez! Ez-eta ere, «egurketa», «bihiketa», eta bertze holako hameka! Bainan utz dezagun hortan *Hiztegia*, lan bat gaitza dela erranik, garratoin eta saguentzat egina etzena segur...

Bertze lan handi bat, lan ikaragarri bat Hiri-barrenen *Zuhur-Hitzak* Pierre Lhande Xuberoko aita jesuista euskalzaleak zenbeit ager-arazi zituen 1928-an eta, orduan erran zaukunaz, bertze frango gelditu zen Hiribarrenen paperetan. Lo utziko ote ditugu, populuan ez dutelakotz errorik? Berak asmatuak omen zituen! Populuan dabilzanak ez ote ditu norbeitek asmatu egun batez?

*«Hainitz eskas, beharrak,
Oro, zikoitzak...».*

*«Gizon guti jakinik
Lo egonik...».*

*«Ez da sokaz mintzatzeko
Urkatua denean hurbilsko...».*

Horra Hiribarrenek asmatuak direlako lau zuhur-hitz: Holatsukoak dire bertze guziak. Uste dugu aise sar litazkela Euskal-Herrian.

Lan handi, lan ikaragarriak orobat, behinere agertu ez diren *Andredena Mariaren bizitzea*,

Predikuak, Irunako phestak, Montevideoko berriak eta bertze asko.

Hiribarrenek argitu dituen lanetan ez dugu «Eskuaraz Egia» aipatzen, nihun ez baititake gehiago liburu horren itzalik ere atxeman. Bat eskuetan badugu Parisetik etorria, hango ur hegi batean salgei ziren liburu zahar batzuen artean andre errientsa kaskoin batek, atxemanik, eta igorririk *emoik! Pauci quos aequus amavit Jupiter!*

Eskualdunak derizan 238 orrialdetako liburu-ttoan, pertsutan mintzo da Hiribarren, Lapurdin herritik herrirat orotako ikusgarri, edergailu eta jendeak aipatzen dituela:

*«Hirugarren apeza bizi da Bardoitzen,
Piko hauk dituela nolazpeit moldatzen,
Ustez, xede onetan, nahiz herriari
Geroan kausirazi orai zer den berri»...*

dio berak. Orai erran nahi baita 1853-an. Harritzeko da zoin aise egiten zituen pertsuak Hiribarrenek. Ez ote ditu sei mila liburu hortan? Haren paperetakoak bertzalde. Ba ote da Hiribarrenek

bere pertsuetan kantatu ez duenik? Huna zer erraiten daukun berak:

«Dugun kanta herria, lana, bertutea».

eta badakigu herria, lana eta bertutea baino gehiago, hainitz gehiago ere kantatu duela: Iberia, Kantabria, Nafar-Lapurdikoko heri guziak, Mutikoak, Neskatzak, Errientak, Kargudunak, Apezak, Mirikuak bezala Agotak, Xardinzaleak, Pilotariak eta asko.

Daukagu P, Lafitte jaun apez jakintsunak erran ote duen «pertsuaren egiteko behar direla jeinua eta jakitatea»: nork uka Hiribarrenek bazituela?

*«Pirenen erraietan
Galdea pasaietan
Balitz abiatzen,
Ikus liteke sortzen,
Guti dena ikusten,
Mendetako haurra
Ibero zaharra...».*

*«Nihoiz badut ahanzten
Orhoitzapena aiten,
Herriko bidea,
Hauzi nauen etxea
Hauzoko axkidea,
Ene hatsa bedi
Zintzurrean geldi!...».*

bezalako pertsuak eman dituen, bai pertsularia zen. Bazituen jeinua eta jakitatea. Bertzeak ere badire hori bera uste zutena. Huna zer irakurtzen dugun Larresoroko lthurry zenaren eskutiz batean:

*«Ederrenak hautatuz ederrenetarik
Nihun ote ditake holako lorerik?».*

eta ondotik kantu zenbeit Elissamburu, Zalduby eta Hiribarren gure herritarrarenak. Hiribarrenek ohore egiten dio beraz Azkaineri. Ohore Chouriok bezala. Ohore Chouriok bezenbat. Nori gogoratuko zaio Martzenean bezala, harri lantu baten ezartzea Etxeberrian?

Zalduby norbeit zen: orok badakite. Zer kantu ederrak ez ditu bere denboran egin. Ba ote du pilotaz eta pilotariez egin duena baino ederragorik?

*«Pilotak ohore du Euskal-Herrietan
Zeren den ederrena joko guzietan...».*

Hiribarrenek ere baditu bereak: ehun eta hogoi pertsu.

*«Perkain eta Azantza Euskaldun herrian
Aipatzen dire nola Errege Frantzian.
Euskarak diraueno, hoik bien izenak
Kausturen mendietan beti oihartzunak...».*

Eta gero, lerro-lerro, hoberenen izenak. Lehenak hartza iduri: bigarrenak ez zorrik nihori: eta bakoetak bere tileta. Eta beha pilotaren parabola ederrak plazen burutik bururat:

*«Pilota dabil airez, ezin bara nihon,
Gibeletik egortzen, barne ezin egon,
Bortz, sei aldiz etortzen eskularruz joa,
Apaletik, duela ziztuan hegoa.*

*Altxatzen da zerura, ortzadar bezala,
Arkurik ederrena egiten duela.
Buru guziek betan diote beiratzen,
Ezker-eskuin direla harekin itzultzen...».*

Pertsu horiek irakurtzean iduritzen zauku Hazparneko plazan han egundaino jokatu den partida ederrena ikusten dugula: Baxenabarre Lapurdiren kontra, 1934-ean, Urriaren 21-ean: Urruty, Lemoine, Madre, Rospide...

AZKAINDAR IDAZLE ZENBEIT

Jada aipatuak ditugu Chourio eta Hiribarren: aipa ditzagun bertze zenbeit: euskal lur ona da Azkaine.

P. Lafitte jaun apezak duela zenbeit urte igorri zaukun eskutitz batean ikusi eta ikasi ginuen, Noël-Joseph Duverger delako batek 1778-an argitaratu zuela «*Gudu Izpirituala*»... eta jaun hori Azkaindarra zela. Etzauku iduritzen. Ez da Azkaineko paper zaharrenetan izen hori ikusten, eta Hiribarrenek nola etzuen aipatuko bederen bere pertsuetan, hala izan balitz? Egia hau da haatik, Duverger batzu kausitzen direla oraino auzo-herri batzuetan, bereziki Hendaian. Hangoa ote zen? Hendaiaiko eta Azkaineko euskarak aski ahaide hurbilak dire... litania beltzetaraino! Ez dugu beraz denborarik galduko Duverger jaunarekin.

Ez eta ere aita Damien beneditanoarekin. Lapeyre jaun kalonjearen anaia zen aita Damien. Predikari ederraren fama bazuen bederen. Eta gero ez ote ditu 1892-an harek argitaratu «*Kantu*

Izpiritualak»? Aita Xavier eta Aita Lertxundi gu baino toki hobean dire hortaz mintzatzeko: agian eginen dute ondoko egun batez! Donibandar eta Azkaindar gisa zor dutela iduritzen baitzauku!

Adrien Mornas donibandar harakinak etxe bat badu Azkainen, Luisbaita. Lehen Tipienea erraiten zioten etxeari. Hango zen, Martin bezala, Esteban Lapeyre. Apeztua hogoitahirur urtetako, fruitu goizik ondua, bikario, igorri zuten Uztaritzerat. Etzuen haatik hezur zaharrik han egin behar. Urte baten buruko Baionan zen, San Leonetako eskola handian irakasle. Han zazpi urte eremanik, Bidarten kausitzen dugu erretor: hogoita-hameka urte zituen doi-doia eta hiruetan-hogoita-hamarreko gerla ari Alemanekin. Bidarten egonen da Lapeyre mila zortzi ehun eta laueta hogoita bederatzia arte. Baionan Kantepratzeko xahartegirat deitu zuten, hango kapillan eta kalonje *ad honorem*. Xahartegi hortan egin zuen Azkaineko euskara maitagarrienen *Kredo edo Sinhesten dut*, egungo egunean oraino aski aise kausitu ditaken liburu eder eta baliossa. Egilearen izena segur sekulan ahanzterat utziko ez duen liburu horri, Diharce Hazpandar

orduan bikario-jeneral zenak, eman zion agertze-ko baimena: «Artoski irakurtu dugu Murde Lapeyre kalonjeak, *Kredo edo Sinhesten dut* esplikatzeko egin duen liburua. Dadukagu azken denbora hautan gure herrian agertu diren liburu-arten artean ez dela hau gutienik prezatzekoa. Hemen kausitzen dire girixtinoak jakin behar dituen egia premiatsuenak, Elizako Aiten eta Teologalen esplikazionez argituak, egin ahala klarki, eta mintzaira garbi batean, izpiritu guzien menerat ekarriak. Hortakotz gogotik onesten dugu liburu balios hori izan dadin inprimatua. Esperantza dugu Euskal-Herriko fededunak, lehenagoko usaia onei jarraikiez, egingen dutela horren irakurtzeaz beren arimen hazkurria. Baionan egina abendoaren 10-ean 1891-ean».

Adin ederrean zen oraino Lapeyre bertze liburu frangoren egiteko. Etziren holakoak Jainkoaren xedeak. Mila zortzi ehun eta laueta hogoita hamar hirur, martxoaren hogoita hiruan, San Joseph hain maite zuenaren prediku baten moldatzen ari zelarik, aldixartze bat sentidu zuen, xutitu, argia eskuan hartu eta oheari buruz abiatu. Etzen heldu. Erori zen tanpalakoan eta

han erre. Egia baita ohoian bat bezala etorriko dela orori heriotzea!

Orok badakite aspaldi, Azkainekoa dela Zerbitzari, Lapeyre eta Chouriotarren bi hauzotxeen artean, 1883-an, aboztuaren 29-an sortua. Adinak baderama beraz eta hoberenetik ez dute zenbeit urte laburrez baizik ikusiko gehiago Euskalzaileek beren bilkuretan. Hau erran behar dautzuegu urrunago joan gabe: Zerbitzari ahai-de hurbilegia dugu hartaz espantuka hastako: hemengo lerro eta xehetasunak kofesio bat bezala hartuko ditutzue beraz eta barkamen osoa eman nahiko diozue, barkamen osoa zuen bihotz guziaz. *Scribitur ad narrandum*, zioen lehen mendean Quintilien batek. Ez dugu bertze xederik.

Jean Elissalde Azkaindar apez xaharrari, nundik etorria ote Zerbitzariren izen hori? Huna. Mila bederatzi ehun eta hamalauko gerlan, behin Hiriart-Urruty jaun kalonjeari eskutitz bat igorri zion, adixkide gisa, gerlako berriekin eta bere eskutitza bururatu, eskutitz guziak egiten diren bezala «Zure Zerbitzari J.E.». Hiriart-Urruty jaun kalonjeari iduriturik berri horiek atsegin egingen

zutela *Eskualduna* orduko asterokoaren irakurtaileeri, ondoko asteen ager-arazi zituen, Zerbitzari doi-doia izentzat utzirik. Aintzinean hanhemenka zenbeit lan ttipi balin bazuen eginik, eta agerazirik, erran ditake geroztik hedatutela Zerbitzari. Aita Dourisboure Bezkoiztar missionest famatuaren liburu bat —*Les Sauvages Banhars*— euskararat itzuli du, argitaratu *Ama Maria Pasionekoa*, *Kantari Berriz*, *Zuhur Hitzak*, *Ixtorio Saindua*. Ez dire liburuetan bilduak, binan astetik asterat egunkarian agertuak: *San Franses Xabierekoa*, *Theophane Venard dohatsua*, *Berrogoita hamazazpigarrena Gerlan*, *Pellot itsasturia*, lau liburu handiren geiak.

Lerro-lerro aipa ditazke gero *Gure Herrian* agertu dituen bai landare bai xorien izenak. Menturaz hola salbatuko dire, bertzela galtzerat zozozin izen hainitz: ehunka menturaz: ehunka segur.

Eta Zerbitzarik zenbat kondaira ez du han eta hemen hedatu: Manez Ohoina, Karlosen Bihotz Ona, Batita zeruan, Ihiztari ixtorio bat, Aphez arraintzalea, Pello, Bakhotxak bere aldi, Ondikola eta Lutxoki, Harrixabaleko hel-herrietan Harri-

xabalen bezala, Mariluz, Ganix Artzaina, Erranzahar bat, Juan Soldado, Mixeria, Pilotari Xaharra, Bixintxoren predikua, Manex eta Piarres, Ziburutarra zeruan... eta bertze asko.

Eta ez ote litake liburu bat egin, Urchalle, Bittor Embil, Enrique Embil, Bautista, Perkain, Azantza, Matin, Chilar, Larralde, Ziki, Cantabria, Errezabal, Soudre-Goni, Piztia, Porteno, Léon Dongaitz, Arze, Behachka, Harambillet aita, Pouchant, Darraïdou, Harambillet semea, Saint-Martin, Ibarburu, Aguer, Inazio, Durruty, Damestoy, Laduche, Vivier, Jean Urruty, eta Euskal-Herrian izen bat bazuten bertze pilotari guziekin? Eta, espanturik gabe erraiteko, iduritzen zauku horiek guti direla hogoita bortz urtez Zerbitzarik egin dituen bi lanen aldean: *Mendiburutegiko egutegia* eta *Eskualzaleen Biltzarreko* sariketak.

Egiari bere bidea haatik: lan horiek, eta aipatzen ez ditugun bertze frango ez dire oro eta beti Zerbitzariren izenarekin agertu: Zerbitzarik aski maite zuen izenaren berritzea eta zenbat *Lurtxuri*, *Azkaindarra*, *Bilharia*, *Haur Prodigoa* eta *Nor-nahi* ez du asmatu. Jainkoak eta irakurtzailek barka dezotela...

«Eta orai dezagun eremua zabal

Gazte bat gei harturik, jaun apez Larzabal...».

Berehala erraiteko, Pierre Larzabal Ziburun da erretor, elizarik gabeko erretor haatik, Zokoan bat egiteko manuaekin, jaun Apezpikuak 1951-an Hazparneko bikariogotik harat igorria. Ez dugu dudatzen bat eginen duela, argia bezen panpina, norbeitek lagundu nahi balin badu. Euskaldunetan ere kausi ditake eskugain frango baduenik eta ez jakin euskaldunki nun egin obra on bat. Doala Pierre Larzabalen ganat... eta erre-nen dio.

Pierre Larzabal Azkainen sortu zen 1915-ean: gerla bete-betean beraz, eta ez da harritzeko bolbora aire bat balin badu artetan. Bataio-harri-rat zeramatelarik, norbeitek ez ote zuen bidean erran: «Oi, gaixo maite horrek bederen ez du gerlarik ikusiko eta jastatuko!». Pierre Larzabalek ez du oraino bakerik ikusi munduan, eta Alemaniako presondegiak berak 1940-ean jastatuak ditu.

Ixtudiangotik jada frogatua zaukun Euskara bazakiela eta maite zuela. Ez dezakegu xuxen erran zenbat sari irabazi zituen urtetik urterat Eskualzaleen Biltzarreko sariketetan: bizpalau bederen, bere «*Allande eta astronomuak*», «*Sorginak Lapurdin*» eta ez dakigu zerekin. Jada izpiritu argia eta ohartuena frogatzen duen lana «*Sorginak Lapurdin*» bederen. Hala behar baita hogoi urte gabe Pierre Larzabal jada mintzo zen bezala mintzatzeko: «Eta erlijioea zertan zen denbora hartan? Orok dakitena da hamabortz eta hamaseigarren mendetan jendea debruaren beldurrean bizi zela. Sinestea tikitzen den tokietan, maiz, amodiozko sentimenduen ondotik, beldurezko sentimenduak heldu dire. Beraz hainbertze entzuten zen debruaz eta haren obrez mintzatzeko, dela prediku-alkitik, dela sahetsetarik, nun gertakari bat ez baitzitaken iragan, hartan zenbeit debruri bere sudurra sar-arazi gabe».

Ez lokartzekotan, holako izpiritu zorrotz, eta den gutieneko bat ozarrak, egin behar du bide... eta egin du Pierre Larzabalek. Ez dute segurki egin dituen lan guziek balio bera, ez, baina deu-

sik ez bada surat igortzekorik, hainitz jada badu Azkaindar gazteak berari eta sor-herriari ohore egiten diotenik: hala-nola *Merkaturik, Irri eta nigar, Bazkari hauta, Kontrabandixtak, Manex Ohoretan, Nor gira gu? Okhilomendi, Nork hil du Oyhenalde?* eta ororen aintzinean, Euskal-Herria 1952-an, lur-ikara batek bezenbat inarrosi duen *Etchahun*. Geroztik egin du lan irri-egitekorik eta bihotz hunkigarririk, *Basabeltz, Bordaxuri, Kontrabandixtaren alhaba, Portu-Xoko, Hiru xiren...* Gazte da oraino Pierre Larzabal. Ez dezala denborarik gal ez deuskerietan eta ikusiko duzue bertze Etchahunik agertuko dela ondoko egunetan. Adixkidea, hau ez ahantz: «*nil actum, si quid agendum*», eta Euskal-Herriko gazte guziak oihuka ari zauzkitzu Satagrazitik Biriaturaino...

HERRIKO APEZAK

Azkaineko idazle batzu aipatu digutu orai arte: Chourio, Lapeyre, Hiribarren, Zerbitzari, Larzabal. Apezak, oro. Bainan euskaraz deusik ez dutelakotz zirrimarratu, ez ote ditugu bertze apezak aipatu behar? Segurki.

Aspaldi hilak dire eta jada ahantziak zenbeit: bertze batzu, hil berrixago, xokoetan aipatzen dituzte oraino: frango bada han edo hemen bizi denik. Sail eder bat, Azkaineko herriaren koronarik ederrena!

Elizari apezak emanen ditueno, Jainkoak zainduko du Azkaine. Lehen bezala zainduko. Gaullieur idazleak «*Histoire de la Réforme*» delakoan erraiten baitu 1549-an Donibane eta Lapurdiko bertze herri zenbeitetan protestanten erlisione berriak berehala erroak egin zituela, Azkaine etzen erori. Bere apezan gatik, Jainkoak zaindu zuen.

Bai, Azkaineko apezak aipa detzagun beraz... Hilak, lehenik...

Haatik, huna egia: geroztikakoak dire hemen aipatuko ditugunak. Paperik ez da, edo guk ez dugu bederen kausitu, Jean-Baptiste Duhalde jesuistaz haratago doanik. Uhaldeko semea, hau, 1674-ean sortua. Mundua kurritu zuen eta 1735-ean liburu eder bat argitaratu Xina eta Tartariako erresumez:

*«Uhaldeko seme zen Duhalde handia,
Xinan arimaketan karrat ibilia.
Aipamena utzi du mende orotako...».*

Etzen Jean-Baptiste lo egona ordu arte. Jada bertze liburu bat argitaratua bazuen 1724-ean. *«Le Sage Chrétien»*, munduan bizi nahi duten girixtinoentzat kontseilu hoberenez betea. Anaia bat ba omen zuen, jesuista bera bezala, baina huntaz deus ez dugu ikasi, hau baizik: urrungo misionetarat joan zela hau ere...

Errebira, Azkaineko etxe handienetarik bat da. Zaharrenetarik ere ba naski. Hangoa zen Jean Doyhambéhère. Fama handiko Hiribarren pertsulari haren xortelaguna, Azkainen erraiten den bezala, hau baino hainitz gehiago zaharturik

hil zen Donibaneko apez-nausi eta kalonje, lehenik bikario Baionan eta gero erretor Baigorri egonik. «*Pieux, zélé, charitable, il fut un prêtre selon le coeur de Dieu*», dio harri zahar batek hilherrian. Erran gabe Hiribarrenek ere aipatzen duela bere pertsuetan:

*«Bigarrenak izena du Doyhambéhère,
Bere sor-tokiari diona ohore.
Baigorri zen gazterik erretor jarria,
Ikus duke bakotxak zer duen mihia.
Maina bezala badu izpiritu zuhur:
Haren kantari ere eman zaio agur!».*

Eta egiazki kantari ederra zen, eta oraino beharrietan dugu nola Azkaineko adorazione batzuez inarosten zituen aldaretik galerietaraino elizako xoko gehienak. Jainkoak emana Jainkoari itzultzen zion.

Haranederrekoa ote zen Xemartin Gracy? Hala iduri luke izenetik. Etxe horrek zenbat eta zenbat apez eta serora ez du eman! Xemartin Gracy ere Hiribarrenen denborakoa zen: utz dezogun beraz elea.

*«..... Bat da Irulegin,
Ongi hainitz baituke hark non-nahi egin.
Bihotz on batekin du hainitz arraizia,
Bozkario saildutan darama bizia.
Populu dohatsua erretor duena!
Xemartin Gracy, izen ongi dohakona!*

Bederatzi urte egon zen erretor Irulegin. Hel-
duden urtean eginen ditu ehun urte hil zela.

Eta huna nun berritz ere lumarat heldu zau-
kun Haranederrea: hangoa zen segurki Jean-
Baptiste Heuty. Bizpahiruetan gure begiak zabal-
du behar izan ditugu apez hunen hil-harrian ira-
kurtu digularik 1840-ean sortua, 1896-ean hil
zela. Berrogoita hamasei urtetan beraz. Jada
agure xahar bat iduri zuen Bidarten erretor eza-
gutu dugularik! Pausutik etorri zen Bidarterat.
Nahiz orduan oraino gaztesko ginen apez baten
jujatzeko, ezti, on eta kartsu iduritu zitzaukun
Bidarteko jaun erretora. Ez daukute haatik behi-
nere bertzerik erran gu baino zaharrago batzuek
ere. Heuty jaunak jada hogoita sei urte bazituen
Hiribarren hil zelarik, bainan hunek ez du aski

ezagutu naski, aita edo anaia bezala bere pertzuetan aipatzeko:

*«Laborari miraila Heuty Haraneder,
Buru gora non-nahi dukeiena ager!».*

Ez dezakegu Berhouague Lohitzuneko erreto-raz deus handirik erran. Saran bikario egonik joana zen harat. Adin ederrean hil zen, berrogoibat urte leku berean erretor Lohitzunen iraganik. Apez ixil bat zen, aski herabea, bainan bere apez lan guziak arta eta amodio handienarekin egiten zituen. Bere Azkaine behinere ahanzi ez duen Azkaindarra. Urte guzietz Andreden Mariak alde-
rat, herrirat etorriko zen, adixkide xaharrekin egun goxo batzuen iragaiterat. Erran dezagun haatik Azkaineko beretterrek etzutela begi onez ikusten, hirur oren laurden, eta noiz-nahi oren bat, emaiten baitzuten bere mezaren erraiteko! Itzal handiagorik ez duen apezak bota dezola lehen harria!!!

Nahiz doidoiak Berhouague jaunarekin etzukeen halako makurrik adinean, hainitzez hobeki ezagutu dugu Landaxko. Azkaindar gehienentzat

etzen Landaxko baizik Jean Larregain aita misionesta, Hazpandarren Saindu Mokorra, berriberrian Xinan apezpiku hil den Jean Larregain Senpertarraren osaba. Bidarteko bikariogotik zuen Hazparneko misionest berrien komentuko bidea. Etzen sekulan ateratzekoa komentu hartari. Han iragan ditu berrogoita zenbeit urte, Arbelbide, Heguiagaray, Ossiniry eta Mendy batzuen ondoan. Misionest kartsu bat, nihun kartsurik balin bada, eta predikari bat guti aditzen den bezalakoa...

Irissarri ahantzixea da Azkainen, haren jenderik nihun ez baita gehiago, eta bera ere gutisko agertzen baitzen sor-herrirat, azken denboretan bederen. Azkaine bururaino maitatu de hare eta haren atsegirik handiena zen, nunbeit Azkaindar bat buruz-buru egiten bazuen, xahar edo gazte, harekin trikatzea eta herriko berriez mintzatzea. Xeruenbordan sortua zen, Larrungo hegal batean. Urrunan urte pare bat bikario egonik, laketu orduko Senpererat igorri zuten eta Senperetik erretor Ezterenzubirat. Sei urteren buruko jaun Apezpikuak deitu zuen Izturitzeko herri pollit eta onerat. Han hil zen 1920-ean,

hanbat zahartu gabe. Gizon goxo bat, maitagarri-
rri-
netarik, eta arras elizakoa, diote oraino lztu-
ritzeko xaharrek...

Senperen sortua zen Grégoire Larronde, bai-
nan Azkainen Lamberbaitan handitua eta han
osoki Azkaindantua. Aita bizi zueno ardura ikusi
izan dugu Azkainen. Gero ere herriaren amodioa
bihotzean zuen: hango berri ttipi eta ezdeusenek
atsegin egiten zioten. Milafrangako bikariogotik
Gerezietarat erretor joana, han hil zen hogoita
zenbait urteren buruan, oraino frango gazte haa-
tik. Indar handiko gizona, Gerezietan nunbeitko
langileak eliza zaharrean obran ari ziren batez,
harritu zituen, nihork higi ez zezaken harri bat
berak bizkarrerat altxatuz eta, zurubiak goiti,
dorreraino eremanen. Eta zenbat holako eginez!
Etzituen batere espantuz egiten, langileak urri-
kariz bakarrik. Hain zen ona! Bertzalde, lehengo
Ottarre, Ezkerre eta Ziki pilotari famatuen heine-
ko pilotaria izana zelarik bera, nork entzun du
sekulan espantuka? Nork behinere entzun dio
ele bat bera, han eta hemen irabaziak zituen
dirutze, zinta eta makila ferratuez? Apeza zen;
apeza bakarrik...

Grégoire bere anaia bezala Senperen sortua izanagatik, Larronde ere, hura bezen Azkaindarra zen. Bai Azkaindarra... mihi puntaraino, 1933-ko «Gure Almanakak» erraiten daukunaz. Berant aire apeztua zen. Aiherrerat igorri zuten lehenik bikario eta gero Urrunarat. Handik Arruntzerat erretor. Erretorgoa utzi behar izan zuen 1926-an. Predikari dohatua, nola etzuen Arruntzeko eliza pollita inarosten, Arruntzarrek denboraren buruan ahanzi ez dituzten bitxikeria batzu artetan emanez. Hala nola hau, batere trufatzeko erraiten ez duguna, bainan pollitaren pollitez eta menturaz orduan egia zelakotz: «Laharraren umea, martxuka; pikaren umea, pika; Arruntztarraren umea ere bat!». Denbora hartan Arruntzeko gazteriak ez omen zuen dantza baizik gogoan...

Ez litazke Dominique Larronde zenaren ateraldi batzu galtzerat utzi behar. Urrea balio dute. Urre aberatsena. Hala nola igande batez neskatxa arisko bati bi begien arterat predikalkitik igorri ziona: Etxe zahar eta lurrerat zolan batetako neskatxa batek kopeta izan zuen —Arruntzen lehen— galtzerdi argaletan hilerrirat agertzeko.

Eta apezak ikusi. Baia ba? Bere tokian ezarri zuen predikuan, arras izendatu gabe: «Holakoak behar luke etxetik ateratu, hamar urrats egin, itzuli eta etxeari beha erran: bizkitartean ni hortik ateratzen naiz!» Hiribarrenen pertsuak jakin balitu gogoz, menturaz erranen ziozkan:

*«Neskatxa zoro, arin, buru gabekoa,
Zeren gainean duzu amesten koroa!
Ohe bat izan gabe zoaz ezkontzerat;
Mingarri da denean mahain huts jaterat!».*

*«Ongi nahi duenak ondoan aurkitu
Soinekoetan dirua ez behar kondatu;
Zuhurra ez da beti berritan beztitzen,
Girgilleria ez du sobera maitatzen».*

Dominique eta Jean Berterretche, bi anaia ziren, lehengo errient onen etorkitik. Aski gazte hil ziren bat eta bertzea, bat Arruntzen, bertzea Zuraiden, harrabots handirik behinere nihun egin gabe. Apez gozo bat zen Dominique. Jean bixiago. Laurent eta Dominique Berho, heien ilobak Metsikorat joan eta han kokatuz geroz, Eli-

zaldean ez da gehiago ahaidegoko esku bat bi jaun apezten hobiaren gainean Umiasainduetan bederen loreto baten ezartzeko. Horra mundu hau!

Nahiz naski orai Berhotarrak Urrunan egoiten dire, Berho Azkaindarra zen: han handitua. Apez-tu orduko Donibane Lohitzunerat igorri zuten bikario. Hirur urteren buruko hila zen, baina jada nola erroak han eginik! Huna zer irakurtzen dugun haren heriotzeaz orduko egunkari batean: Osagarri iduriz daimurik gabekoa, igandean zortzi gelditua zen etxean, medikuak hamabortz bat egunen pausua hartzeko erranik. Igandea, zoriek ote zabilkaten ala beren Jainkoaren goseak bakarrik, bikario lagun bati ekarrarazi dio komunione saindua. Astelehenean bardin. Eta gero, ez bat ez biga, nihoren dudatzeko denborarik ere gabe haspena bat jauzi eta hogoi minutaz akabo! Gaixo Nani, hain maite ginuena! Hain maite orok! Eztia zen, ona zen, baina nahi zuena nahi halere, eta lanak ez lotsatzen...

Aita François Etchenique, beneditanoa nork ez du ezagutu Euskal-Herrian? Predikari gustagarriena, orotaratzat galdea zuen. Eta orotan bere

burua maitarazten, hain zen maitagarri eta atsegina, irri ezti bat ezpainetan, boza pollitenarekin eta supazterreko mila ixtorio xaharrekin! Azkubeko semea gazterik hil zen lanak higatua. Bada-kigu zilo ederra egin zuela beneditanoetan eta ere segur urrun serora sen Carmen bere arreba-
ren bihotzean.

Eta huna Bertrand Aramendy: Gu guzien Pettan. Apez berri, bikario igorri zuten... Kaskoi-
netarat. Azkaindar bat Kaskoinekin! Nahiz aski hiri ederra den Gan eta laket-leku iduri, etzuen laketu gure Pettanek eta zer atsegina ukan zuen 1937-an jaun Apezpikuak Bardozerat izendatu zuelarik! Herri pollita da Bardoze.

*«Lapurdi bazterrean ipar alderditik,
Bardoitz mendixken puntan, erreka artetik,
Ikusten da airean bere lur lehekin
Etxeak dituela xuri gusturekin...».*

1937: beraz doidoia gerla handi bat baino bi urte lehenago. Bainan gerla etorri zeneko, Pettanek erroak eginak zituen toki berrian. Gerla egin zuen bere adineko guziekin eta egun batez Ale-

manen aztaparretarat erori. Gaixo apeza! Berak daki zer ikusi zuen Koenigsberg-eko inguruetan. Bixta ahulskoa jada, ahuldu zitzaion oraino, eta galduko zuela beldurturik, Alemanek igorri zuten etxerat. Etzioten bi aldiz manatu behar izan. Nola etzuen handik goiti bere burua maitarazi behar, lehenik Bardozen, gero erretor bezala Ezterenzubin. Ondikotz sobera jasanik bazuen Alemaniako lurretan! Gaitza hezurretan sartua zuen: 1947-an pausatu zen, heriotzerak lotsatu gabe, Jainkoaren besoetan: *Requiescat in pace!*

AZKEN HITZA APEZEZ

Ez litake gisa hoinbertze Azkaindar apez aipatu eta bospasei bazterrerat uztea... bizi dire-lakoan eta harrabots handirik egin gabe bizi! Aipatzeko, mementoaren beha ginauden baka-rik...

Izen arrotz baten gatik, Azkaindarra da J.B. Justes, Birgaileneko semea, 1886-ean sortua. Han handitu zen orobat eta harat biltzen da oraino, Donibaneko egitekoek hiruzpalau oren libro uzten duteneko. Laket-leku da Birgailenea, «*Pension Basque*» orai duen izenarekin ere!

Ez da nor-nahi J.B. Justes. Apeztu aintzinean Tolosako ikastegi famatuan gradu handienak bildu zituen eta gero, apez eskola emaiten hasi, Abbadie jaun kalonje zenaren itzalean. Ondikotz, Bellokeko ilundura eta umiduretan, bi urte gabe osagarria galdurik, berritz Birgailenean zen kadi-ra berezi batean luze-luzea! Luze-luzea eta higitu gabe urte pare batentzat! Nahiz bere denboran soldako ibilia zen, Hamalaueko Gerlak etzuen beraz atxeman. Bainan emeki-emeki sen-

datua balin bazen, behin ere ez da aski azkartu aintzineko lanari lotzeko. Donibane-Lohitzunen kokatua da orai, burasoek fidatu nahi diozkatentzako haur bakar batzuen eskolatzeko, artetan herriko apeak elizan eta kanpoan ederki lagunduz. Ez baita errex J.B. Justes baino apez, apezagorik kausitzea! Ixila da; goxoa da; kartsua da. Holako jitearekin eta jakitatearekin, nun-nahi egingen zuen bide! Osagarriak ez du utzi...

Eta huna gure Pantxua, Azkaindarren Pantxua, hainbertze eta hainbertze adixkide duen Pantxua! Nor da Pantxua? François Ibarburu Arraioko jaun apez biribil eta maitagarria, berrogoita zenbeit urtetan oraino Euskal-Herriko pilotari aipatuenera aipatuenera bat. Lehen meza 1933-an eman gabe jadanik, Jaun Apezpi-kuak irakasle igorria zuen Louis de Gonzague deitu Baionako ikastetxerat. Ikusten duzue Pantxua han preso? Eremuak maiteago ditu eta hirur urteren buruko bikario da Bezkoitzen. Nola berehala maitatu zuen hango populuak eta guziz hango gazteriak! Bainan apeza ez da bere nausi eta Pantxua igorri zuten Urrunarat, bere bikari-goaren hango xoko zabaletan bururatzerat...

Erretor joaiteko adinean Biriaturat joan zen, algerarik. Biriatu bere aintzineko guzien herria zuen, alabainan! Han da oraino, jada hamarbat urte huntan, herritar eta kanpotiar, ororen zerbitzuko. Predikari pollita, otoitz egile handia, langile presta... eta Biriatuko xokoak galdetzen duen bezala, hein bat bederen kontrabandixta naski! Horra zertako segur 1953-an hamarbat egunez bederen, etxeko saldaren orde, *Villa Chagrin* delako batetakoa jastatu behar izan duen Laxague, Irigoien eta Ariztia jaun apezekin! Egia erren, nungo apeza etzen kontrabandixt eginen judu zikin batzuen aztaparretarik bi haur gaixo ateratzeko? Gora Pantxua!

Haranederrearen ondotik, Azkaineko etxalde handi eta ezagutuenetarik bat Errebira ditake. Artean erraiteko, errebera ez ote litake «errepira»? Paper zaharrak ikusi behar! Dena dela, etxalde eder hori apez etxe bat da. Eta ez dugu hori erraiten, bere etxea berritu ziotelarik Met-hieu Elissalt erretor ohia hainbertze denboraz Errebiran egon zelakotz, ez: Bainan hango semea zelakotz Jean Doyhambéhère jaun kalonjea, eta orobat hango semeak baitire Michel eta

Roger Idiart bi anaia apezak! Michel Ortzaizeko bikario eta errient maitatua da, segurko Ortzaiztarrek saltzekoa ez duten bikario eta errienta; ez dakigu noiz arte! Roger Baionan da irakasle, *St-Louis de Gonzague* jada aipatu hartan. Bati eta bertzeari Jainkoak eman dezotela, bi anaieri hein berean, orai hitzemaiten duten bezala apez on eta saindu izaiteko grazia osaba zena bezala! Errebirari beti merezi duen ohorea ekartzeko...

Xoko pollita da Olheta. Xoko ixila ere ba. Segurki, kontrabandako ixtorio batzuez kanpo, deus gutik sekulan inarosten duen xokoa! Ez da halere guti egia zerbeitek inarrosi zuela 1950-ean. Zerk bada? Lehen meza batek. Etzen naski egundaino apezik izan Olhetatik ordu arte. Philippe Telletcheak Betharramen hasi zituen eskolak, bainan kaskoiniako aireak ez baitzion onik egiten, Baionan bururatu. Orai Uztaritzen da irakasle. Arras hango egina omen bortz urtez, bainan nihundik etzauku iduritzen holako apez goxo eta «kontxekenta» —Azkainen erraiten duten bezala— ez dela herri zabal, eder eta on batean bizitzeko eta hedatzeko egina! Geroak erranen ditu oro...

Gabriel Iturria jaun apezak duela bortz urte eman zuen meza. Ernea zela, haurkina zela, musikaria zela, ez dakigu zer zela, badakizue norat igorri zuten paper ederrenak eskuan? Argentinarat! Argentinarat, hango Euskaldunetz arta hartzeko! Urrungo eltzea beti urrez! Argentinan mila lan eginarazi ziozkaten, mila herrietan ibilarazi zuten... bainan Euskaldunik ez aipatu ere! Bi urteren buruko etsitu zuen, lasterrago eginen baitzuten gutiz gehienek, eta itzuli zen sorlekurat, jaun Apezpikuaren gomendio! Sarako bikariogo maitagarri eta ona jastatu orduko, Miarritzerat igorria dute urtetsu huntan. Nunnahi laketuko duen eta bere burua maitaraziko duen apez gisa da; ona, ixila, langilea. Agian hainitz urtez, jaun apeza!

Eta badire zenbeit azpitik goiti heldu direnak: biga badire jada helduak kasik, beren lehen meza aurten emanen dutenaz geroz... menturaz lerro hauk *Gure Herrian* agertu baino lehen: Jeannot Ithurria, Miarritzeko jaun bikario doidoia aipatuaren anaia, eta Onaindia, Gipuzkoatik hunat etorri jaun apez batzuen iloba. Adixkide gazteak, *Dominus vobiscum!*

Azkaineko apezen lantto hau hemen bururatzean, herritarrek barka dezagutela bakotxaz ez menturaz merezi zuten ongi guzia erranik. Barka dezagutela orobat ez baditugu doidoia aipatzen baizik herriko hainbertze serora saildu. Ixiltasunaren ondotik joan ziren Angeluko, Uztaritzeko, Ahurtiko eta bertze komentuetarat eta ixiltasunean nahi dute oraino han bizi. Jainkoak lagunt eta gida detzala beti!...

MIRIKU ETA SASI-MIRIKU

Arimako mirikuak luzeki aipatu ondoan, nahuzue aipa detzagun bertzeak? Egia erraiteko, behinere ez dugu azkaindar mirikurik ezagutu. Sasi-miriku zenbeit ba haatik. Biga bederen aipatu behar ditugu hemen...

Horietarat gabe ez ote diogu haatik bat zor Pinatel Jaun mirikuari? Sortzez ez bazen azkaindarra, ez ote zen azkaindarta azkenekotz? Eta hala azkaindarta, nun auzapez hautatua izan baitzen eta auzapez izan hainbertze urtez! Baionatik adin batean etorria, Portuan bere egoitza eginik, etzen azkaindarrik ezagutzen etzuenik: Euskara etzakien, baina errotik atxikitzen zion... eta menturaz etzuen euskaraz ere bere burua saltzerat utziko, deusik erran gabe! Gizon pollita, miriku ezti eta jakina, bihotz handikoa, eta osoki Jainkotiarra. Heriotze guti ikusten da jaun harena baino ederragorik. Min tzar batek ereman zuen, ezagutza osoan elizako guziak harturik. Etzuten Azkainen ehortzi, baina haren oroitzapena han da oraino hainitz bihotzetan...

Sasi-miriku frango ezagutu dugu gure denboran: Jainkotipia, Jainkobeltza, Petillou, Daunatua, bertzeak bertze. Handienaren heinekoa zen Baltatzar Azkainen. Etzuen eskolarik. Irakurtzen bate zakiem bederen? Ez dugu uste. Etzuen liburuetarik beraz bere jakitatea. Nun kausi halere Baltatzar baino gizon artexagorik hezur ateratu baten bere tokian ezartzeko? Donibanen, Miarritzen, Baionan eta nun-nahi ibilki zen mirikuntzan eta egundaino nihungo mirikuek etzioten gerlarik bilatu.

Orduko mirikuak etziren oraiko batzu bezen minbera... Hezur hautsien antolatzen ere baten zakiem, bainanbatere ez dugu gordeko behin hezur bat hautsi baginu, Baltatzar baino nahiagoko ginuela Lafourcade ikusi Baionan edo Chavannaz Bordelen! Ez da lan bera hezur ateratuaren lekuan ezartzea eta hautsiaren antolartzea...

Hezurretan bezen trebe zen Baltatzar arrunteko gaitz batzuen artatzen. Etzuen landaretan baizik sinisterik eta sekulan etzuen bertze sendagailurik. Guzien buruan, zer-nahi izen latin eta graka ukanagatik, sendagailu gehien-gehienak

ez ote dire landaretarik heldu? Huna gure basamirikuaren landare maitatuenak: urtsu-belarra, morroina, aragorria, xixari-belarra, erromania eta, gutixago haatik, karraskila. Ez dakitenentzat nahuzue bi hitzez erran dezagun zer eta zoin diren sei landare balios horiek?

Urtsu-belarrari *aigremoine* erraiten diote frantsesez, *agrimonia eupatoria* latinez. Bide bazter eta pentze, trumilka nun-nahi kausi ditake. Zintzurko minetan manatzen zuen Baltazarrek.

Eztularen kontra ez omen da morroin tizana baino hoberik: baratzen batzuetan nahi baino gehiago bada. Morroina *bourrache officielle* da frantsesez, *borrago officinalis* latinez.

Xixari-belarra *tanaisie vulgaire* frantsesez, *tanacetum vulgare* latinez, ez da egungo egunean ere arras bazterrerat utzia, ez Azkainen ez nihun. Izenak berak erakusten du xixarien kontrako sendagailua dela.

Aragorria baino landare hedatuagorik ba ote da Euskal-Herrian? Ez da beraz harritzeko Baltazarrek ezagutzen bazuen. Ez du haatik aras izen bera orotan: ahagoa erraiten diote hainitz

eskualdetan. *Patience* da frantsesez, *rumez patientia* latinez. Purgatzeko ematen zuen aragorria Baltazarrek.

Bainan ez da landarerik gure sasi-mirikuak erromania baino maiteago zuenik. Alabainan erromatizentzat manatzen zuen eta ez da itsas-hegian eta mendiko ihintzetan ibilki eta bizi direnetan erromatizismo baino gaitz hedatuagorik. Maino idorrek manatzen zituen erromaniarekin. *Romarin* da frantsesez, erromania eta *rosmarinus officinalis* latinez.

Huna —artean— erromaniaz *Gure Herria* zahar batek zer erraiten daukun: «Landare guti da Euskal-Herrian “erremulia” baino maitatuago denik. Pollita da, usain ona du, eta dohain hainitz badu erromatizismo zahar eta holakoen kontra. Loreek jauntziatarik zimitzak urruntzen dituzte, bertzalde». Eta badakizue Alemanian zerren kontra derabilkaten erromania? Ezkabearen eta zorrien kontra...

Badakigu segurki Baltazarrek karraskila ere ezagutzen zuela, bainan etzuen sobera manatu nahi: izitzen zuen karraskilak, behin berak galtxagorri ikusi baitzuen soberaxe bezala harturik.

In medio stat virtus. Zer ote da, bada, karraskila (edo karraskaila)? Eskuin eta ezker galdetu izan dugu hainitz miriku xaharri eta sendagailu egile-ri. Batzuen eta berzeen erranetarik iduri luke landare mota bat baino gehiago badela izen hori emaiten diotenik. Ainhoako aldean frantsesez *germandrée* eta latinez *teucrium pyrenaicum* deitzen den landareari erraiten diote karraskila, Giron jaun apez zenaren arabera. Hendaia eta Biriatuko aldean karraskila frantsesez *yeuse* eta latinez *Squercus coccifera* deitzen den landarea da. Eta bertze eskualde batzuetan, Sarako adixkide baten paperek diotenaz *nerprun prugatif*, *rhamus cathartica*. Hau edo hura izan dadien, nihork ez dezala nola-nahi har, Michel Labégue-rie bezalako jaun miriku argitu bati aipatu gabe: pozoina badu karraskilak. Eta menturaz ez lea-kete orok ihardok Baltatzar batek bezala.

Erran gabe doa Azkaineko sasi-mirikuak ez zakizkala landare horien izen ez frantses ez latinak: zerbeit da euskarazkoen jakitea bera!...

Harritia gaude Baltatzarrek eztularen kontra nola etzuen usuago manatzen idi-mihia, *scolo-*

pendre frantsesez: menturaz Azkainen orok badakitelakotz deus ez dela hoberik...

Haurrak utzi ditu Baltatzarrek ete heieri bere jakitatea. Ez dire haatik aita bezala hedatu orotarar. Bizkitartean batek bederen, Frantxeskak, zerbeit egin omen zezaken eta ezta hanbat denbora Biriatur batek ixtorio hau kondatu daukula: Igande arrats batez, arnoa nausi eta gidari, Biriaturko mutil tzar batzuek asto bat ebatsi zuten eta Jaun erretoraren portaleari estekatu. Mattio, orok ezagutzen dute Mattio, etzen saltsan, bainan saltsa ikusi zuen eta egiterat utzi. Horran nun biharamun goizean oihanean zuhaitz baten pikatzen hasi orduko gainerat erortzen zaion. Mattio gaizoa etzen aise heldu etxerat errainetan hartu kaskakoarekin. Buruari eman zuen Jainkoaren gaztigua zuela, gazte tzarrak ez gibelaturik bezperako jokoan. Bururaino ixiltzekotz etzuen mirikurik deitu behar: etzuen deitu... eta norbeit Azkainerat igorri zuen delako Frantxes karen bila. Ongi egin baitzuen segurki! Hain ongi artatu zuen Baltatzarren semeak nun ondo ko egun batez, egia zilaturik, Hendaiako mirikuak Mattiori erran baitzion: «Sekulan ez nuen

sinetsiko holako ikaragarrikeria hoin ongi arta zezakela Frantxeska batek! Nik ez nuen hobeki eginen!». Jeinua badu —edo bazuen— aitak bezala...

Castilla etzen azkaindarra sortzez. Hogoita-bizpalau urte bazituen Azkainerat etorri zelarik Espainiatik desertur. Handik aski laster Azkaindar batekin ezkonduarik arras azkaindaru zen. Euskara bera ikasi zuen, frantsesa bera ere ba guti edo aski. Castillaren dohaina arras dohain berezi bet zen: piko eta sistakoak otoitz batez sendatzen zituen! Edo bederen odola geldiarazten zuen! Nihork ez dezala uste izan trufa dugula hori: hainitzek eta hainitzek finkatu, «tieso» finkatu daukutena da! Hala nola Etchezarreta bizi den batek! Eri bat segarekin pikaturik, Castilla deitu zuen, eta hau bizpahiruretan zeinatu zen! Eta betbetan odola gelditu!!! Castillak hola hola sendatu omen zituen Senpere Aspeltzeko seme bat, pudaz kolpatua, eta Ganix Zigarroa, sudurrean egin saki batetik! Eta Castillak zenbat holako ez du egin eskuin eta ezker! Erran dezagun sasi-miriku hau gizon prestu bat zela, aho onekoa eta elizako urratseri arras jarraikia...

Espainian *saludador* deitzen omen dituzten holako miriku motak eta, Azkue jaun apezak bere liburuetarik batean nunbeit erraiten daukunaz, hango Euskal-Herrian ba omen da frango. *Saludador* izaiteko, familiako zazpigarren seme behar da, artean arrebarik gabe. Mihi azpian gurutze bat omen dute. Castellaren denbora bertsuari, Urrunan bazen holako bat: Xemartin Luberrikoa. Adineko azkaindar gehienek ezagutu dute eta ikusi: ez dakigu mihi azpirat behinere behatu dioten haatik! Dena dela, Xemartin Luberrikoak ere sendatzen omen zuen...

Emazte batek ere ukan bide dezake dohaina, familiako zazpigarren alaba balinbada... artean anaiarik gabe. Ez du hainbertze denbora Ezpeletan emazte *saludador* bat ezagutu dutela. Hauk, mihi gainean dute gurutzea!!!

Ez dute sineste hori Euskaldunek bakarrik, Bretinian ere badute. Aitortuko ote dugu ez dugula zurezko jainkoetan baino sinesten, guk, *saludador* horietan? Baltazarrek, ba, senda zezaken bere landare eta belarrekin: Ezpeletako neskaxari ez ginion behatzaren punta fidatu nahiko. Castillak odola geldi ote zezaken ototiz

batez? Segurki Jainkak nor-nahiri eman dezoke mirakuluaren dohaina, bainan ez dezakegu erran hari edo huni eman diola: Eliza da juje. Castilla kolpatuaren ganat heldu orduko, zenbeit denbora joaiten zen... menturaz aski denbora odola bera gelditzeko. Castillak etzuen dirurik galdetzen, emana hartzen ba haatik. Beraz... beraz! Bakotxak ikus.

Badakizue guk sasi-mirikuak deitzen ditugun sendagile hauk nola deitzen zituen gure herritar Hiribarrenek?

*«Baziren ere bertze aireko-barberak
Sorgin kontra zuztenak balios indarrak!
Gaizo zenbeiti zuten ematen buruan
Etzuketela onik bere mirikuan...».*

Ez ginuke nahi nihork uste izan dezan deus sorginkeriarik bazela Castilla gaizoan. Herriko apezak behin izan zitzaizkon odolaren gelditzeko zer otoitz egiten zuen galdetzerat: hunat zer ihardetsi zioten: «Zer otoitz egiten dutan? Nik ez dakit egun guzietako otoitza baizik».

Bixtan da Castilla hamazazpigarren mendean agertu balitz Azkainerat, laster eta laster D'Arguibel apeza bezala erreko zutela Santizpirite-tan...

SORGINAK

Batere bilatu gabe, Castilla gaizoak huna nun ekarri gaituen... sorginetarat. Bada ez ditake Azkainez mintza, sorginez mintzatu gabe. Ez dugu haatik nahi hemen sorgin ixtorio guzian sartu: ito gintazke.

Bertzalde, sorginen ixtorioa hemen gaindi bururen buru ikasi nahi duenak, aski du *Gure Herria* eskuratzea eta ixtorio hori han irakurtuko du, luma ederrenaz, lehenik gure adixkide handi Apesteguy zenak kondatua, gero Larzabal gure herritarrak. Hau da guk erran behar duguna: Azkaindarrek orai galduxa badute sorginetako sinestea, hainitz denboraz supazterretan ez dela bertzerik aipatu.

Gure xaharretarik zenbat aldiz ez dugu gero- nek De Lancre famatu haren izena aditu! Nor zen, bada, jauntto hori? Henri IV, Frantziako erregearen dretxo-zale eta mandatari bat, Bor- daletik Euskal-Herrirat sorginen atxemaiteko eta gaztigatzeko igorria. Egiaz, memento hartan jen- deak predikari kartsu batzuen behar handiago

zuen holako juje baten baino. Gehiago dena Frantzia guzian etzen De Lancre zoroaren hautua baino tzarragorik egiten ahal.

Beha zer erraiten duen hartaz Pierre Larzabalek, berak hainitz liburu eskuetan ibili ondoan: «Tipi tipitik sorgin ixtorioetan hazia, sorginez idatzi liburu gehienen jakitateaz hantua, gure gizonak Euskaldunek berek baino sineste handiagoa zuen sorginkeria baitan. Sorginak airetan ibiltzen zirela, haurrak beren sehaskatik ebasten zituztela, debruekin ezkontzen zirela, eta holako zorokeria batzu nehork etziozkan burutik aterako. Alabainan bai san Agustinen, bai san Tomas Akinokoaren, bai bertze frango idazleen irakaspena zen hori. Ezagutua ere zen orotan Sprenger izeneko fraile baten liburua, zointan xeheki irakutsiak baitziren Alemanian sorginek zeramatzaten sail ikaragarriak». Horra 1609-ean Baionan barna, Lapurdin sartu zen legetiar gizonttoa.

«Hogoita hamarbat mila arima zitaken Lapurdin orduan. Harrotu, eta ederki harrotu behar zituen gure Bordelesak. Hau Larrun puntatik Hendaiaraino jauzi egiten ikusi zutela, hura ez dakigu nungo xerriaren eriarazlea zela, eta mila

holako estakururentzat, zenbat eta zenbat jende gaixo etzuen hilarazi!!!». Azkenekotz apezari jarraiki zen delakoa, baizik-eta «sorginkeriaren erroak apezan baitan zirela eta hauk suntsitu gabe deus onik etzezakela egin». Hirur apez bederen hilarazi zituen. Bat azkaindarra.

Utz dezagun berritz ere Pierre Larzabal mintzatzerat: «D'Arguibel, Azkainko erretora zen. Jadanik laueta-hogoi urtetan iragana, zentzua pixka bat nahasten hasia zitzaion. Bere buruarekin noiz-nahi solasean zagon eta haren mintza eta kurri-manerak bitziak ziren. Sorgintzat eka-rria, De Lancrek erretor-etxea mia-arazi zuen eta huna zer zuten atxeman: egurrezko gurutzeko hautsi bat, gaineko adarraz, gabetua! Bazen aski. Gurutzen bat hirur adarrekin? Nun zen laugarrena? Erretor sorginak trufaz moztua zuela, dudarik nehork ez zezaken izan, De Lancren araber...». Hortakotz kondenatu zuten D'Arguibel, Pierre Larzabalek dionaz.

Bertzerik erraiten daukue Joseph Nogaretek: «*Le curé d'Ascain, nommé Arguibel, vieillard de 75 ans, tombé en enfance, fut condamné sur l'affirmation de deux femmes qui dirent l'avoir*

vu au sabbat. Le malheureux avoua tout ce qu'on voulut». Dena dela, Santizpiritetako elizan bere apez-jauntzi guziak kendurik, zaku tzar bat ordain emanik, eliza aintzinean hanxet erre zuten!

Nahuzue pollitaren pollitez begien aintzinean ezar dezazuegun Paul Vovard jada aipatuaren zati bat? *«Au début du XVII siècle, De Lancre fit mourir trois pêtres, dont un curé d'Ascain, prétendant que ce malheureux se rendait de nuit au Sabbat à cheval sur un bâton, après avoir acquis le don diabolique de se déplacer dans les airs en se trottant le corps avec de la graisse d'enfant égorgés...»*. Holakorik buruan eman ditakela.

Egia erran, holako sinestea ez ote da eritasun bat? Hain aise hedatu zelakotz gure herrian, helde, helde ikaragarri bat zela erran ginezake kasik! Gure haur denbora batean Azkainen erien puntan konda zitazken Gaxuxa Zipitria, izen horrekin eta bere begi gorriekin, sorgintzat ez zeraukatenak! Sortzez Senpertarra zen Gaxuxa Zipitria. Deusik ez dakigu haren aintzinekoez. Erromes gorria, bizia esketik biltzen zuen! Bainen hanbat gaixto gure Gaxuxa etxe batetarat

hurbiltzean, hango haurrak eroriko bat egiten bazuen eta minartzen, hanbat gaixto Gaxuxa etxe baten ondoan iragan-eta, hango urdea eritzen bazen, haren gain joanen ziren bat eta bertzea... eta bertze gerta zitazken makur guziak! Ez, hainitzen burutik etzen aise kenduko Gaxuxa etzela zuek eta ni baino sorginago.

Denboraren buruan oraino arras gogoan dugu behin zer gertatu zitzaion Malakat-baitan. Hango etxetiartsa eriturik, Gaxuxa ikusterat joan zitzaion federik hoberenean. Goiz hartan hobeki eginen zuen etxean egon balitz segur: Gaxuxa etxean sartzen ikusi zueneko, arrunt burutik joan zen Malakat eta, jauzian atea hertsirik, oihuka hasi: «Sorgin tzarra, zuk eritu dautazu emaztea: zoaz hemendik, eta zoaz gako zilo hortarik edo ederrak hartuko ditutzu!». Eta Gaxuxa gizona ez baitzen gako zilotik ateratu, astoarenak eta mandoarenak hantxe hartu zituen burutik beheiti! Hauzoak orroetarat etorri ez balire, nork daki gizon koskak etzuen apo bat bezala han kalituko! Dena dela, josteta Gaxuxari gusta zitzaion hamabortz egun ohe, eta Malakati bertze hainbertze presundegi! Erran gabe doa Azkaindarre-

tan erdiak segurik Malakaten alde zirela, auzia Baionan xuritu arte bederen... eta ez ginezake eria suan eman gero ere etzirela hala egon zenbeit!!!

Ez dugu Gaxuxaz geroztik, sorginik ezagutu guk Azkainen, hura hala balin bazen. Badakigu haatik egungo egunean oraino frango eta frangok ipurtargi bat gauaz nunbeit ikustea aski dutela sorgin eta sorginkeriez supazterrean, eta hauzoan, berehala mintzatzeko.

Eta ez du hainitz denbora ixtorio hunek gertatua dela. Etxe batean —ez dugu salatuko zointan— urdea zabal-zabala lurrean dagokiote eta asearen aseaz ez du higitu nahi. Sorginek «konjuratu» diotela, jabea badoa hauzorat. Hauzoak irria eta trufa maite, erraiten dio holakoetan ez dela erremedio bat baizik, «behar dela talo burdina suan gorritu eta harekin hirur kaskako urdearu buruan eman!». Sinetsiko ote duzue hirugarren kaskako baten beha egon gabe urdea sendatua zela eta xutitua?... Bainan munduan ez da gizonik, jabearen buruan sar-araziko duenik etzela han den gutieneko sorginkeriarik! Eta badugu ustea egungo egunean herriak badi-

rela, Azkainek baino gehiago sorginetan sines-
ten dutenak! Ez dire Azkainekoak hitz hauk: sor-
gin-oiloa, sorgin-baratxuria, sorgin-orratza, eta
bertze batzu! Segur han eta hemen jakintsun
aintzinatu batzuek hameka ixtorio pollit baluke-
te biltzeko, eta *Gure Herriari* igortzeko, Azkain-
darrak bereak sobera luzatu gabe!...

LAMINAK

Neguko arrats luze hotzetan gaztainak «*pinpi-panpa*» paderan erretzen ari zirelarik, nork ez du Azkainen laminez mintzatzen aditu?

Bainan zer ziren laminak? Gu baino xaharra-goek erran daukutenaz, mixteriozko gizon eta emazte batzu ziren eta lezeetan bizi. Ez omen ziren gauaz baizik ateratzen. Beren bokata bera gauerditan egiten zuten, lamina guziak iturri bererat bildurik, lerr-lerro, ilargi xuritan. Beren buruzagiak bazituzten.

Zer heinetakoak ote ziren? Handiena gaitzeru batean sar omen zitaken! Ez du iduri gaixtoak zirela: ohoinak, denik ere, Azkainen bederen. Senperekoek haatik ez omen zuten ohointzan ibiltze beharrik, Jean Barbier zenaren liburu baten arabera: hango laminak aberats puxantak ziren. Puxantak! Urpean bazituzten beren gaztelu ederrak: ez ditake jaten zuten ogia baino xuriagorik: urrezko orraze batzu bazituzten:

laguntzen zituztenak gain-gainetik sariztatzen zituzten. Eta ez dakigu zer oraino! Ez, etziren holakoak Azkainen!

Nundik heldu ote zaiote izen hori lamineri? Guk ez dakigu: goazen beraz jakintsunetarat. Ez dugu ezagutzen Euskal Herriari doazkonetan Azkue jaun apez zena baino handiagorik. Huna, bada, zer erraiten duen *Euskal Herriaren Jakintza* delako liburuan: «Lamiaren izena Greziarrena omen da. Beren Mitolojian Frigiako erregina dela diote, galanta eta ederra. Zeus-ek (Erromarren Jupiterrek) bere emazte egin zuelarik, lengo emazte Herak gorrotoz eta kurrukaz beren seme-alaba guziak hil zituen». Erran gabe doa nihor ez dela ifernurat joanen hori sinetsi ez due-lakotz...

Lapurdin badire erran-zahar batzu, norbeitek lehen-bai-lehen bildu eta argitaratzen ez baditu, laster ahantziko eta galduko direnak. Huna haatik zenbeit Haranederreko nausi xahar zenari adituak:

*«Arrain-saltzaile Bidarteko,
Dena sorgin Getariako,
Xokolet-edale Donibaneko,
Moko-zikin Ziburuko,
Ohore-nahi Urrunako,
Arrano-jale Biriatuko,
Ikatz-egile Sarako,
Belaun-buru handi Senpereko
Zoko-moko Azkaineko».*

Harritzeko izanen zen Azkaineko zoko-moko-
etan ez baginu lamina ixteriorik kausitu. Bat
eman dezagun hemen, pollita delakotz. Uhalde-
ko harrubian ba omen ziren laminak, lehen. Gau
guziez ximiniari behera Uhaldeko sukalderat sar-
tzen ziren, *«firri-farra»*, eta han esne-untzi
guziak husten. Etzezaketen buru Uhaldeko nausi
gaixoek. Etxekandereak behin bere baitan eginik
josteta horrek aski iraun zuela, hamar orenetako
oro oherat igorri zituen eta bera sukaldean geldit-
tu. Berea gogoan, zartain bat eman zuen suan
olioz betea. Gauerdi zen lehen lamina ximiniari
behera jautsi zelarik. Jo eskuin, jo ezker abiatu
zen lamina, leihotik mahainerat, mahainetik

pegartegirat, bainan nihun deusik ezin atxema-
nez, etxekandreari hurbildu zitzaion:

—«Zer erretzen duzu zartain hortan, atsotto?

—Neronek nere burua, lamintto!

—Zer?

—Neronek nere burua! Hurbil zaite gehixago,
ikusteko!».

Eta hainbertzenarekin, laminari ohartzeko
astirik utzi gabe, zartaina bere olioarekin besain-
ka igorri zion bi begien erdirat! Laminaren karra-
siak! Etxe guzia iratzar-arazi zuten. Erran gabe
doa lekuak «*atxatxo*» hustu zituela laminak eta,
bi jauziz, han zela harrubian, bere lagun
erdian!...

—«Nork ezarri zaitu planta hortan laguntto?
Nor da hoin tzarra?

—Neronek nere burua!».

Eta etzioten lagunek bertzerik ateratu doha-
kabeari, marruma ikaragarri batzu baizik. Egia
asmatu zuten halere eta biharamun arratsean
mendekatzea deliberatu. Etzioten denborarik
utzi Uhaldeko etxekandreak: heriko erretora
eguerdi gabe etxerat deitua zuen eta ingurueta-
ko zilo guziak benedika-araziak; Aitare eta

Semearen eta Izpiritu Sainduaren izenean!
Otoitz horiek hil ote zituzten edo urrundu lami-
nak? Azkaindar xaharrenek ez dakite. Menturaz
Arraioko lamina ziloetarat joan ziren eta han
kokatu. Uhaldean ez omen da beti geroztik bat
bakara agertu.

Uhaldeko laminak hortan utzirik, beldurra
baitudu Oxobi, Piarres eta So-egile batzuek lerro
hauk irakurtuko dituztela... eta aski punttakoak
direla Euskarari buruz... goraxago egin huts
batez barkamendu nahi diotegu, orai berean,
galdetu: lamina «*ximinia*» behera jautsi zela
erran dugu: zer hitz itsusia! Gisa bereko ixtorio
batean Jean Barbier zena «*su-pizkiaz*» mintzo
da. Hori hitz pollit eta maitagarria! «*Su-pizkia*»
cheminée! Bainan idazle handi zenak nundik
ateratu ote du hitz hori? Berak asmatu ote du?
Nahi badu, ba: erran dezogun orok ongi-etorri.
Hitz bat bazterrerat utzi behar ote da, berria
delakotz? Oro, berri izan dire noizpeit!!!

PURRUXKA BATZU

Baionako katiximak huna zer dion sineskeriaz: «Sineskeria edo superztizionea da sinestea holako jendeak edo holako gauzak baduela botere bat, Jainkoak ez Elizak eman ez diona». Zorigaitzez, hameka eta hameka azkaindar bada oraino aise bekatu hortan eror litakenik. Hauxe bera ez ote da sineskeria? Behi bati kalitxak heldu zaizkonean, aski da gorozti aldaxka bat *herriz kanpotik* ekartzea, bidean ur errekarik *iragan gabe*, eta aldaska hura *heian ezartzea*. Goroztia eihartu gabe kalitxak eroriko zaizko behiari... Eta badire hori sinesten duten azkaindarrak!!!

Azkainen aditua:

*«Lertsunak lerro-lerro airean doazi
Beroaren lekurat hotzaren ihesi...».*

Azkainen zenbeit emaztek ttotta aski maite omen zuten denbora batez eta ixtoio bat konda-

tzen aditu izan dugu supazterrean. Senpereko adorazione batez, hogoi apez lekuko, Azkaineko erretorak pario hau egin zuen Senperekoarekin: argitik iluna arte Azkaineko hirur emaztek hama-bortz pinta aguardient edaten zituztela. Arratsean, etxerat itzuli zelarik, Katalin Beltza deitu zuen berehala, eta Senperen zer pario egin zuen erran.

—«Parioa ez dautzugu gal-araziko, jauna.

—Nor hartuko dun lagun? Gazuza Moko?

—Ba, jauna: ohore eginen dautzu...

Hirugarren Manana Motza?

—Fa, jauna! Bizpahirur pinta hustu orduko, elea nausitua du!!!

Kontrabando ixtorio hainitz balitake Azkainen, bildu nahi lituzkenarentzat. Huna bat. Duela ehunbat edo gehixago urte, Mazondo delako espainol batek osoki harrituak zauzkan mendirat menturatzen ziren guziak: kontrabandixta bezen ohoina zen eta arras axola guti zuen nor-nahiren biziaz. Jada bazituen bizpahirur gizon hilak Franzian, eta bertze hainbertze naski Espainian.

Dena dela, horra nun goiz batez Piarres Elizalde mugazainak handik edo hemendik zilatzen duen Mazondo ondoko gauean zerbeit kontrabanda baliosekin irgaitekoa dela Martinaurrenbordan gaindi. Gaztea zen Elizalde eta bihotz gaitzeko gizona. Aitzindariari galdetzen diote Martinaurrenbordako inguruetararat igor dezaten zerbitzuz. Baietz, hala nahi duenaz geroz, bainan... gertatuko dena haren gain! Horra nola zen Elizalde gau hartan Mazondoren bidean gertatu. Ganix Handia zuen laguntzat. Biririkak bere lekuan zituean mugazaina hau ere eta norbeiti kuskako baten emaitako batere lotsa etzena. Bada, gauerdi alderat otarditik urrats batzu aditzen dituzten bi mugazainek, eta zango punten gainean abiatzen dire harrabotseri buruz. Ilargi bafada batean horra nun ikusten bi gizon kargatuak. Hauk ere ikusi dituzte haatik mugazainak. Bat haizea bezala ihesari eman zen; bigarrena etzen hain lotsakor —Mazondo zen— eta bidea segitu zuen, deus ez balitz bezala, mugazainen ondoraino.

—«Geldi hor, Mazondo!

—Hik geldiarazirik beti ez, Piarres!».

Ez ote? Eta Elizaldek jauzi egiten dio gainerat. Hango borroka partida! Bainan horra nun kanibetkaldi batez Mazondok alde bertze iragaiten dion eskuineko eskua mugazainari. Lagunaren orro saminek burutik joanarazten dute Ganix Handia eta bere xixparen gibelaz kaskoa arrailtzen dio Mazondori. Berritz gibelat itzulia hogoi-bat urratsetarik beha zagon bigarren kontrabandixta: Jainkoa lekuko, zirurikan tiro bat igorri zion Ganix Handiari, huts egin eta ihesari eman, Ganix Handia jarraik zakioken eta tiroa pagaraz. Ez: Piarres Elizalde aldixartzan ari zela oharturik, bizkarrean hartu zuen eta, artatzeko, bi jauziz Martinaurrenbordarat ereman. Piarres artatua, bigak, berriz otardirat zirelarik Mazondo bila, oro sutan ziren: etzuten Mazondorik atxeman, jada errea zen. Herri guziak ez omen zuen atsegin ttikia ukan!

Azkaindar xahar-xaharretan nor edo nor baditake oraino Luis Handia ezagutu duenik.

Haren indarreko gizonik ez omen da gehiago ikusten. Nihork nihun etzion uli handirik bilatzen. Ez da harritzeko. Behin lau peon ari omen ziren harri alimalebati tiraka alde guzietarik eta ezin higi. Luis hurbildu zitzaioten, ederki trufatu... eta berak harria galtzarrean bere tokirat ereman, bi liberako ogi bat bezen aise!

Handiagokoa Landesetan egin omen zuen behin. Adixkide baten etxerat joana zen pestalier. Hain xuxen pesta guzia omen zen «eliza aintzinean zen kanoi zahar bat zoinek doidoia higi». Errotak haxetaraino sartuak zituelakotz, nihork etzuen kanoia higitu astelehenean. Astearte goizean ere ez. Eta horra nun eguerdi alderat fama hedatzen den arratsaldean Euskaldun batek higituko duela eta hamar metretarat eremanen! Ba ote? Arratsaldean mila Kaskoin baziren kanoia-
ren aldean, beren kapelu handiak buruan... eta jada trufa ezpainean! Luis Handia agertu zen, oro bazter-arazi, kanoia terrepente bere ziloetarik ateratu eta han-harat ereman ondoan...
uzkaili.

Arratsean, ostatuan, zer-nahi ohore egin zioten, mozkor-arazi ere ba —omen— nihork halere gerlarik bilatu gabe. *Quo pentsi!*

DURRUTY ETA HARANEDER

*Itsasotik ginenian
Sartu gure familian,
Azkaingo herri noblian
Zer zen gertatu nuen aditu
Bi notablien artian:
Nola ziren justizian
Sartu hitz baten gainian
Donibaneko hirian...*

*Donibanen zer gertatu,
Gauza nola zen pasatu,
Behar dugu deklaratu.
Bazkal-denbora bere gogora
Durrutik ez du pasatu.
Konpainiaz da trufatu,
Xitxi, saltsa eta fruitu,
Guziak iretsi ditu...*

Huna nola zen afera,
Jin zirenian kafera,
Etorri zen Theodora,
Sei lagunena, neurri ona
Eman zuen mahainera:
Durruty saltatu bera,
Lehenik agorrientera
Ongi beterik kikera.

Lauek zutenekotz hartu
Agorrienta zen finitu,
Bi xorta gabe gelditu.
Hori ikusiz Durruty irriz
Zitzaioten abiatu.
Haranederri gaitzitu:
«Ergel xirtxila zer duzu?»
Hitz hortaz du ajornatu...

Ez den bada nardagari
Norat joan den jaun hori!
Ez fida musde Lacori.
Noges sarjanta, gizon galanta,
Hartu du kontseilari.
Ai, zer sujeta gidari!
Saltsa tzarren xuxentzari
Hori da beti ibili...

*Errozu musde Nogesi
Gizon bihotzgabe horri
Nere partez goraintzi.
Gizon mendratzen jende tronpatzen
Ari izan dela aski:
Zor pagatzen dadin hasi,
Bertzeak bere gisa utzi,
Edo doala ihesi!*

*Jujaz naiz estonatu
Lekuko xoil bat aditu
Halere du kondenatu
Unus testis, nullus testis,
Zizeronek erran du;
Legia gida har zazu,
Bi lekuko behar tutzu
Bertzela deus ez zira zu!*

Aspaldikoak dire pertsu hauk: ehun urtetarat doazke; bainan zer gatz-biperrak dituzten orano... Noges batzu ezagutu dituztenentzat.

ITZAL ETA ARGI ZONBEIT

Pazkagi hoberenetan iraka sor ditake: ez da beraz harritu behar Azkainen ere ukan bada Jean Baigorri bat... Mila zortzi ehun eta hiruetan hogoita lauetan sortu zen Patinenean. Ama eza-gutu izan dugu; aita, nihork, nor baitzen ere. Aspaldi galeretan hila da Baigorri, Paueko jaun jujek harat igorririk. Zertako, bada? Huna. Gau batez Maiotenea deitu etxerat gauerdi aldera sartu zen zango punten gainean, azeria oilotegian ezala. Haize hegoa omen zen zuri-zuria. Etzagon oraino lo Gaxina etxeko-andere xaharra. Urrats batzu iduriturik, oihu egin zuen: «Nor da hor? —Ni. —Nor zu, eta zer nahi duzu? —Zu ikusi! —Ez nauzu gaur ikusiko!». Eta sehi gazteari karrasiaka hasi zen: «Salta, Gaxuxa, salta!». Jada zilo handi bat egina bazuen atean ohoinak. Gaxuxa barnetik ateari pusaka ari zelarik, Gaxina oihuka hasi zen leihotik. Bi jauziz Maiotenean zen Semark auzoko arotza, xixpa eskuan, aintzineko atetik: Baigorri jada ihesi joana zen gibelako atetik. Laster atxeman zuten halere Doniba-

neko hede xuriek. Jada bertze etxe batean izana zen gau hartan, Patxuan, eta han izaba bat baitzuen, hari bere sos guziak ebatsiak ziozkan. Olhetako xokoan bizpalau ohointza frogatu ziozkate terrepente. Jada bi aldiz preso egona baitzen, galerak atxeman zituen. Han hila da dohakabea. Xehetasun hauk guziak, eta hemen emaiten ez ditugun bertze zerbeit, delako Gaxuxaren ahotik dauzkagu: ileak buruan xutitzen zitzaizkon, Baigorri aipatzean...

Bertze iraka ondo bat gure baratze ederrean: Apeeneko eroa deitzen ginuean dohakabea. Galeretan hila hau ere, Paskalina Lalo ziburutar botigesa ebasteko hilik. Ukatu eta ukatu zuen segurki luzaz, bainan azkenean froga atxeman zioten: mokanes gorri bat! Guti aski da zenbeitetan norbeiten galtzeko!

* * *

Laduche, Gonzales, Inda, Lascanotegi, Ibarburu, Elgoriaga, Barnetchea, Vicenti, Arrieta, Idiart, Artola, Migelorena eta Hauret batzuen herria da Azkaine, eta hauk ez dire eskuz baizik

ari... eta hemen ez dugu halere xixtera baizik aipatuko, azken denbora hautan ez baita egunkarrietan bertze elerik. Nun eta noiz sortu da xixtera? Azkainen? harek edo hunek finkatzen duten bezala? Etzauku iduritzen. Ba haatik Azkainen handitu eta edertu dela! Duela hogoi urte hil zen pilotari batek erraiten zaukun hamasei urtetan arizan zela Matiu Ahetzekoaren kontra: jada bazuen xixtera bat, Matiuuk etzuen eskularru luzea baizik... eta ez dugu uste Lacarra Azkainen kokatua zela oraino! Beraz xixtera nekez sortu da Azkainen. Bainan beha haatik erirakurtzen dugun mila zortzi ehun eta lauetan hogoita hamabian argitaratu espainol-erderazko liburu batean: *«El fabricante Lacarra, residente en Ascain, en la frontera vasco-francesa, parece tener el privilegio exclusivo de la construcción de cestas, tal es la maestría con que las hace»*; *Maestría* hitzak aski erraiten du zoin xixtera ederrak egiten zituen jada Lacarrak! Bereziki gain-gainetik prestatuak ziren Lacarraren *«mauzer»* handiak. Ez da harritzeko mila aldiz haurrean Azkaineko karraketan ikusi balin baditugu Espainiako Samperio, Belloqui, Manco, Portal, Ayesta-

ran, Trecet, Eloy, Salazar eta Altamira famatuak, erezun distirantenak eskuan! Pilotariak joan orduko, loria zen Lacarraren lanean ikustean, bere sei alabak aldean, oro kantu errepiketan oraiko Oldarra guziak bezen ederki!!! Zer bozak etzituzten orok!

* * *

Euskal-Herrian nork ez du ezagutzen J.P. Arburu polizako gizona? bere kargua utzirik ixil-xila bizi da itsas-egiko hiri eder batean. Ez da egundaino Azkainen gizon famatuagorik sortu. Eskola handienak egin-eta, gerla ondoan Bordeleko poliza-nausian sartu zen. Euskara ederki baitaki, bere urrats eta balentriez liburu bat sekulan egiten balu, Euskaldunek zer irakur-geia luketen supazterrean neguko hotzetan: Bertzeak bertze, nola ez harri eta xora, Espainian barna Alemaniarentzat espiungoan ari zen jauntto baten bere saretarat biltzeko egin zituen urrats eta jukutriez, Aberriarengatik irriskuari behatu gabe?

Ixtorio ederra orobat, Aiharran beti tratulant bat hil-eta, arrobotu zuen Bastidar tzarraren preso altxatzea, botoin ttipi batetarik hura zela hobenduna frogaturik? Eta guziz zer begiak zabaldurik ez lezakete orok irakur J.P.A. nola Frantzia barnerat igorri zuten eiherazain baten hiltzalearen ondotik, eta nola hiltzale hori preso hartu zuen bere esposetako bazkarian! Bai eiki! Eiherazaina jaun esposak hila zuen bi egun lehenago, bere emaztegeiaren laguntzarekin!!! Eta hori gure Azkaindar adixkideak laster xilatu... eihera aintzinean ikusi zituen espalakoin hatz batzuetan ihizin abiatu! Usna gaitzeko polizagizona zen J.P.A. Erran gabe doa galerak atxeman zituztela bi espos pollitek!!! Etzuten gutiago merezi.

* * *

Ortzia etorri orduko, ez da Azkaindarrik santa Barbarari otoitzean hasten ez denik. Gure herri-tar guziek ba ote dakite nor zen Barbara? Dioscoro paganoaren alaba zen; Origenes handiak girixtinotu zuen, Dioscorek nihundik nahiko zuen

alabak bere Jainkoa arnega zezan; hunek ezetz erranik, aitak bere eskuz hil zuen estapakaldi batez. Bainan lorios etxerat zoalarik, ortziak erre zuen. Horra dudarik gabe, azkaindarrek zertako egiten dioten satan Barbarari otoitz ximixtak hasi orduko. Bainan badakizue Barkoxtarrek noiz egiten dioten otoitz? Buruko minetan...

PILOTA AZKAINEN

Baditake ondoko egunetan edo bederen urteetan norbeitek nahiko dituen egundaino Euskal-Herrian izatu diren pilotari handiskoenen izenak liburu batean bildu. Bertze deus handirik ez dakien azkaindar batek egun nahi dio lan hori, guti bada guti, errextu, Azkaingo pilotariak lerro-lerro hemen agertuz. Ottarre, guziek ezagutu eta maitatu dugun pilotari famatu hartaz geroztik, Azkainen ez bada pilotari handirik sortu, haren aintzinean frango izatu da. Zenbeitez huna zenbeit xehetasun...

Larru da lehen-lehenik aipatu behar. Sabadi-nabaitako semea zen, beraz aita Clement kaputxino omen handikoaren etxe berekoa. Nahiz aita kaputxino horrek Duhalde zuen deitura eta Darruspe gure pilotariak, nola bizpahirur ehun urte iragan baitire bat hil denetik bertzea sortu den arte, ez ditake erran etzirela ahaide. Are gutiago haatik hala zirela.

Dena dela, eskularru luzearekin ari zen Larru eta haren jokoaz ez dute egungo egunean ere aski espantu Azkaingo xahar maite batzuek. Hauk erranik dakigu bizpahirur urtez sos ederrik irabazi ziotela Pausuko Xaltxari eta Baionako Battittari, Battitta eta Xaltxa omen baitziren Lapurdiko pilotari famatuena, Kaskoina hilez geroztik. Hain ongi ari zen menento hartan Larru nun azkaindar sosdun batek hirur-mila liberaz munduko hirur hoberenak desafiatu baitzituen hirur azkaindarren kontra jokatzeko pasaka. Tolosako Handia, Manuel eta Chiquito de Azpeitia agertu zitzaizkoten mendiz bertzaletik. Larruk galdu zuen haatik. Bainan nola harri! Manuel mundu guzian ezagutua zen jada, pertsu hauk frogatzen duten bezala:

*«Gero Espainiatik guri nausitzera,
Meltchor, Antsa, Manuel zitzaizkun atera...».*

Eta oraino ezagutuago zen Manuelen lagun Chiquito de Azpeitia! Ez ote zen munduko pilotari hoberena? Kasik hala iduri luke Peña y Goñi liburu egileak hartaz erraten daukunaz: «un

jugador admirable, el rey del guante». Holako pilotari famatuerei atxiki zuen bezala buru atxikitzeko, Larru ere etzen segurki nor-nahi. Eta etzuen nor-nahi izan behar naski ondoko egunetan Ottarre zahar, Xabat eta Antsorlorekin biperira bezala errausteko Arroxo, Vitoriano, Bettiri eta Mattiu! Bai eiki, Mattiu! Kantuek hala laudatzen duten Mattiu Aheztarra!

*«Mattiuren eskuraz geroztik pilota,
Deuser beha hobeki ez daiteke josta.
Jokoa du segura, adret eta presta,
Haren erreturnaren parerikan ez da...»*.

Nausien nausiak badire beti eta Mattiuk ere Azkainen atxeman zuenberrea: Larru! Ondikotz Larruk gazterik Ameriketako bidea hartu zuen eta egundaino herrian nihork ez du jakiten ahal izan zer bilakatu den. Beldurtzeko da aspaldi hila dela, Azantza eta Kaskoina bezen pilotari handia zelarik, hek bezalako fama utzi gabe.

Larruren ondotik, jada behin aipatu dugun Xabat. Ez ditu hogoi urte izan ehar, lauetan hogoita hamar edo gehiago urtetan, hila dela

Xabatek. Aise ezagutu dugu beraz eta, nahiz hiruetan hogoita zenbeit urte guk baino gehiago bazituen, adixkide handi ginen. Zer oren goxoak iragan ditugun elgarrekin, neguko arrts beltz batzuez, supazterrean, hura bere partidien kon-datzen ari, gu beharriak luzatuak aditzen! Bi sosen adimendua izatu baginu orduan, nola oro paper mutur batean hartuko gintuen! Horrengatik, ez ditugu oro ahantziak eta badakigu hameka aldiz Xabatek garaitu dituela bere denborako pilotari handienak, Bixente Beltza, Coutelier, Mattiu eta Betti barne. Beraz, pilotari handia zen Xabat eta hemen aipatzea zor zitzaion...

Huna orai Ganix, egundaino Azkainen izatu den pilotari hoberena, eskuz, eskularruz eta xixteraz bardin trebe baitzen. Oraino bizi da Ganx, lauetan hogoi urtetarat doala, eta segur bekundea belztuko du, norbeitek, haren espantuak hemen egin dituela heltzen bazaio beharrietarat, bainan egiak behar du bere bidea. Doala beraz egia hori, semearen ahotik, Euskal-Herriko lau hegaletarat...

Duela berrogoita hamar, hiruetan hogoi urte Kattalin delako bat omen zen Frantziako eta

Espainiako (eta, dudarik gabe, munduko) esku-huskalaririk hoberena. Bada, igande arratsalde batez, Ganixek desafioz errautsi zuen Kattalin. Eta nola errautsi! 50 eta 6! Pasa marra lau metretan zuten: lau untzako pilota.

Ganixek bertze partidarik ere irabazi dio Kattalini: behin Nani Teillari, hamasei urtetako mutil gaztearekin, Zubieta, orduko sakari fama-tuena Kattalini lagun emanik. Hogoï liberaz zuten desafioa. Bertze behin, Grégoire Larronde apezgeiarekin, Kattalin bakarrik, ari ziren, baina libro, azkaindarrak ezkerka. Aldi huntan hainbertze sos galdu zuen Kattalinek nun, zorren ordaintzeko, dirua prest norbeiti galdetu behar izan baitzion...

Eta ez uste izan Ganix Azkaingo plazan zela bakarrik pilotari handi. Nun-nahi hala zen eta nun-nahi frogatu du: Donibanen, Senperen, Saran, bertzeak bertze, Anastasio, Beheran, Xilar, Xobadoa eta bertze edozoinen kontra. Eta badakizue Nani Teillari eta Michel Larronde gazteekin nor garrantitu zituen Saran? Maritx, Patxola eta Ziki. Bertze behin Zikirekin Ezpeletan, Bixkandia eta Hali. Aski erratea baita Ziki, Halti eta

Bixkundiarekin arizan den pilotaria, segurki zerbeit bazela.

Bai, Ganix ederki ari zen eskuz... eta ahal bada, xixteraz oraino hobeki.

Saran, Maritx, Arroxo, Michel Larronde eta Nani Teillari lagun, Ganixek garaitu zituen Moxko, Larralde, Patxola, Battitta eta Elsope; Ezpeletan Bixente, Ziki, eta Ottarre aita-seeekin Ganixek irabazi zioten Xilar, Benat, Garat, Benito eta Bagoari. Ottarre zaharra botari; Senperen Larralde, Salaberri, Teillari eta Xabal zaharrenekin Ganixek, pilota jo guziz bide berrirat igorritz, errautsi, zituen Etchevers apezka, Barnetche ixtudianta, Moxko, Leiaburu eta Artoxigor; Itsasun, Ottarre bi anaia eta Zikirekin goizean, eta arratsaldean Ottarre hirur aita-seeekin aise amor emanarazi zioten Estebene, Salaberri, Larronde eta Benitori. Eta nola partida horietan guzietan hirugarren xixtera bezala ari baitzen Ganix, erran ditake etzituela partidak lagunak jokoari esker irabazten bakarrik, bainan berak ere zerbeit egiten zukeela...

Eta pasaka? Pasaka, Ganix oroit da arizanik Diburtxio, Coutelier, Matias, Betti eta Mattiuren

kontra bederen. Hamasei urte baizik etzituen Matiasekin, Betti eta Coutelier garaitu zituelarik hameka jokoz hamahiruetarat. Handik laster Harispe eta Xabat bere herritarrak lagun (17 urte zituen Harispek) Ganix arizan zen Mattiu, Piarres eta Coutelieren kontra: doidoia hirur joko egin zituzten hauk. Azkainen ez omen da egundaino hainbertze sos sartu nola orduan...

Xemartin Salaberri, jada behin edo bertze, hemen aipatua dugu. Azkaindarra zen, Ganixen koinata... beraz gure osaba. «Beso bipileko pilotaria» zaukun behin erran Xilar zenak harentzat. Peto zenbeit egiten omen zituen haatik errebotean. Hala hala pleka, xixterarekin, hein hobere-neko pilotaria zen. Adin bateko azkaindarrek kondatzen dute Salaberri ikusi izan dutela Azkainen, Xilar eta Becas apezarekin Ottarre, Ostolope eta Harispe Getariakoari nausitzen. Alta pario gehienak Harispen alde omen ziren ba! Bertze behin Ganixekin, Ottarre eta Xilar garaitu zituen, nahi bazuten eta ez. Uztaritzen handik laster galdu zuen haatik Cedet eta Senjanekin, Halti eta Xilarren kontra, bainan, galdu bazuen galdu,

Salaberrik egun hartan orori frogatu omen zuen nun-nahi, noiz-nahi, nor-nahi bezenbat bazela.

Gizon maitea, alegera, pilotari leiala, orok maite zuten Lapurdin Salaberri eta segurki hola-ko gizon eta pilotariak merezi izanen zuen gutartean omen handiago baten uztea. Zorigaitzez, aski gazterik pilotari adios erran behartu zitzaion, mugazaingoak denbora hartan ez baitzuen pilotako asti handirik uzten. Horrengatik, azkaindar eta Euskaldun gazte guziek Salaberriren izena beti gogoan atxikiko dute Xilar eta Larrondorena atxikitzen dituzten bezala: hel bezenbat merezi du: eta bertze pilotari guzien kantuak bezala kanta detzatela Salaberrirenak:

*«Ganix aipatu-eta orai noren aldi?
Hobe dut ematea koinataren berri.
Guziek badakite nor zen Salaberri:
Leialagorik ez da izan herri-herri...».*

Nani Teillari bizi da oraino, eta azkar; pilota aspaldi utzia du haatik. Gazte denboran partik ederrik irabazi du hoberenen kontra, eskuz,

Azkainen eta Azkaindik kanpo. Bainan omenik handiena erreboteko botari bezala izatu du.

*«Euskaldunetan beti izan da botari:
Orotan hoberena ez ote Teillari?».*

Zenbat aldiz, desafiozko partidetan beretan, Xilar, Otarre eta bertzeek hura zuten nahi botatzeko. Hameka aldiz Teillari ibili da. Espainian barna hango Irun, Elisseguy, El Manco eta gaineratekoen kontra. Teillari botarik ohore egiten dio beraz bere herriari eta hemen aipatzea zor zitzaion...

Eta orai, Ottarrerren aldi. Bainan hainitz balio ote du Ottarrerren aipatzea? Ez ote da izen hori bera guk erran detzazkegun guziak baino gorago mintzo Euskalduneri? Nor nun da Otarre ezagutu eta maitatu ez duenik? Hain berritan oraino xixtera besazpian joan zen Ybarnegaray bere adixkide eta jaun deputatuaren herrirat eta oro xoratu zituen!

Joko guzietan trebe zen Otarre: guzietan nausien nausi izana da hamasei urtetarik berrogoita hamarrez goititaraino, Mauletik Bilbaorat.

Pilotaririk ote da, behin edo bertze —eta frango-
tan— garraitu ez duenik, ala eskuz ala eskula-
rruz, ala xixterarekin? Mintza ahal balite Biriatu-
ko Ezkerra, Xilar, El Manco, Larralde, Jatxa... eta
oro! Orok gauza bera erran lezakete: norbeit
zela Ottarre. Eta hortan aski.

Geroztik pilotaririk ez dugu Azkainen. Bat
izan ginezaken haatik: Laurent Errandonea.
Eskuz, Dongaitz zaharrena garaitu izan du; pasa-
ka jada pare guti zuen, bainan erreboteko botari
zen guzien gainerik. Saran, Beran, Donibanen
eta Urrunan jada frogak eginak zituen: Berterre-
xe eta Iturrairen heinekoa zen. Ondikotz, gerlak
ereman dauku bertze hainbertze herritar bezala.
Gaizo Errandonea! Nigarra heldu zauku egungo
egunean ere begietarat mutil on, prestu eta
lagunkin hartaz oroitzean! Bai, gaizo Errando-
nea!...

Zenbeit hilabete huntan Azkaingo plazarat
igande arratsaldetan doazinek ez dute aski begi
hamazazpi-hemezortzi urte dituzken mutiko
mehats luxe batentzat: hain zartako ederra ema-
ten dio pilotari ala eskuinaz ala ezkeraz! Ez
dakigu Euskal-Herri guzian baden gei pollitago-

rik. Dena dena, ez da dudarik ondoko egunetan pilotari berri handi bat izan dezakegula, eskuek eta besoak orai bezala atxikitzen badiote. Azken Azkaingo bestetan Nani Ibarburu ikusi dutenek Theodore eta Panpo famatuen kontra, hala uste dute. Gaude beha.